

TOKIKOM

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria 2012ko azaroaren 30a . 326. zenbakia. 24. urtea

Robot artean harrapatuta

Robotikari eskaintzen dizkio Tecnalian ordu asko Urko Esnaola ingeniariak. Japoniara joango da bere lanean gehiago sakontzera..

07

Orioko kontuak
Muntoko plana

11

Aiako berri
Aurrekontuak

21

Iritzia
Langabezia



Erdiko gehigarria
Festa programa

agirresarobe
PROIEKTUAK, OBRAK ETA ERREFORMAK

OBRA BERRIEN PROIEKTUAK ■
ETXE ETA LOKALEN ERREFORMAK ■
FATXADEN ERABERRITZEAK ■
IGOGAILUEN PROIEKTUAK ■
GREMIO KOORDINAKUNTZA ■
INFORMEAK, OBRA LEGALIZAZIOAK, ... ■

ITURRIBIDE 8, 5.BULEGOA, ZARAUTZ
BORJA AGIRRESAROBÉ, ARKITEKTOA 635 731722

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidalak S.L.

Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidalatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93/ 83 08 80, Mugikorra: 656 78 30 01- 656 78 29 95

Gabon
TABERNA
plater konbinatuak eta pintxoak

Tfnoa: 943 83 06 09

GARMENDIA
INMOBILIARIA - AHOLKULARITZA - ASEGURUAK

Ibai Ondo, 1
Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941

Goizeko
KAFETEGIA

943 83 28 55

Aita Leixundi, 33 beheko - ORIO
Autobus parada ondoan

HAIZE BERRI
taberna-jatebidea-kafetegia

Plater konbinatuak,
bekatak,
hamburgerak,
razioak,
eguneko menua...

eta etxera eramateko zerbitzua:

Ordea kaleak, Ordea 1 943 83 16 22 Astearte goiztiar bitartean

IGLESIAS
SARRAILAGILEAK

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesiassarrailagileak@yahoo.es
2010 ORIO

24 ORDUKO ZERBITZUA

- ATEAK IRUKITZEN DITUGU
- SARRAILA-ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTXO MALARUEN ALDAKETA
- KOMUNITATEENTZAKO ZERBITZUA

INDO
Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

Ederki bizi dira (gizonezko) batzuk,
beste (emakumezko) batzuen kontura!
Zainketa duinak guztiontzat: gizon
nahiz emakumeontzat.

#EgitekoAsko

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako II. Foru Plana



berdintasuna **
egiteko asko
www.berdintasuna.tv

CiUri jarriak

1

Murritzetekin eman dute nahiko egur; jokatu dute nonbait beti bezain zuhur, baina sutara bota horrenbeste egur: *katalanak ez gara Espainian beldur* nonbait etzeuden denak uste bezain *ciur*?

2

Artur Mas oso-oso ziur omen dago: autonomia baino estatu nahiago. Baina joan gaitezen izenez harago, sekretua gaurkoan hitzetan baitago: Masek beti behar du zertxobait gehiago!

3

Dagoeneko ezin berriz egin negar, independistak badu nahiko egin behar; denen arten badute lehen aina indar ERC ta CUPekin meta beste belar, orain bere buruak CONVenCIU behar!

326

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur Etxea,
20810 Oriu
943 831 527
karkara@karkara.com
www.karkara.com

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Zuzendaria

Lore Berasaluze

Erredakzio taldea

Irati Agirreazaldegia,
Onintza Aiestaran,
Iñigo Gaiton,
Iker Gurrutxaga,
Eli Lasa
eta Idurre Lizarralde

Publizitatea

Iker Gurrutxaga

Publizitatearen diseinua

Iker Gurrutxaga

Testuen zuzenketa

Elizabete Manterola,
Joseba Orella
eta Rikardo Uzkudun

Ale honetako laguntzaileak

Eneritz Albizu,
Ander Beldarrain,
Iban Egiguren
eta Jokin Salsamendi.

Laguntzaileak

Iñaki Iturain
eta Garbiñe Manterola

Diseinua

Daniel Agirre
eta Karkara taldea

Banatzailak

Kattalin Bollain eta
Esti Uranga (Oriu)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.



PUBLIZITATE PREZIOAK

Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko

Iker Gurrutxagarekin hitz egin
(943 831 527) edo
karkara@karkara.com
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Bihotzez, eskerrik asko

Berrogeita bost urtean ez du inork gogoan izan. Jende asko pasa da egunero handik, baina ez dio begiratu aurpegira. Kexatu, kexatu da bat baino gehiago: baranda ez dagoela ondo, usain txarra dagoela...

Frontoiko eskailerez ari naiz. Konponketak hango bizilagunon patrikatik ordaindu beharreko eremuaz. Baina inguruko etxeetan bizi garenok ez dugu aukerarik horretarako. Ez daukagu behar beste diru hilaren bukaeran zerbait gorde eta hori txukundu ahal izateko.

Baina oraingo Udal gobernuak aurpegira begiratu dio herriko txoko ezagun horri, eta txukuntzeko lanak bere gain hartu ditu. Egoera kaxkarrean zegoen tokia, eta herritarrek egunero erabiltzen segitzen dute. Igogailua egon ala ez.

Horregatik, nire eskerrik beroenak eman nahi dizkiot Orioko Udalar, berrogeita bost urtean lehenengoz ingurua txukuntzeko lana hartu duelako.

Bide batez, hondartzan dugun animalien txokoa ere ea pixka bat txukuntzen duzen. Pako joan zenetik animaliak eta ingurua ez baitaude behar den bezala. Eta, gogoan izan, kanpotar asko etortzen dela propio herriko txoko horretara. ■ **Kandida Arruti**

Elkartasun tonbola

Aurten ere, urtero bezala, Orioko ikastolako DBH 4ko ikasleok antolatutako Elkartasun Tonbola egingo da Gabon Egunean. Duela 7 urte hasi ginen hori antolatzen, eta jendeak harrera bikaina egin dio tonbolari.

Tonbola honetan eskuragarri egoten diren sariak Orion dendaz denda pasa eta bertakoek borondatez emandako opariak bilduta lortzen ditugu. Aurten ere Orioko saltokiei laguntza eskatu beharrean gaude, izan ere, beraien eskuza baltasunari esker antolatu dezakegu tonbola.

Tonbolaren bidez lortutako irabazi guztiak, bi zatitan banatzen ditugu: irabazien erdia, martxoan egingo dugun ikasturte amaierako bidaia finantzatu ahal izateko, eta beste erdia, berri, Rwandako eskola batera bidaltzen dugu, han ezinbestekoa duten materiala erosi ahal izateko. Horregatik deitzen zaio Elkartasun Tonbola.

Besterik gabe, gure eskerrik beroenak urtero hau guztia aurrera eramaten laguntzen diguzuen guztiei. ■ **Orioko Herri Ikastolako DBH 4ko ikasleak**

Bilduk oriotarrei zergak %3,5 igotzea onartzen du

Bilduk eta Orainek oriotarrei zerga eta tasa garrantzitsuenak %3,5 igotzea onartu dute. Diru bilketa gehien dakartzen tasa eta zergak izan dira %3,5 igo direnak. Igoera honek etxebizitzaren OHGZri -IBIari-, zaborren tasari eta ibilgailuen tasari eragingo die. Eta ez dira KPIa igotzearekin bakarrik kontentatu; Kiroldegiko eta Musika Eskolako prezioak %7,5 igotzea onartu dute.

Igoera horien guztien aurka azaldu eta bozkatu zuen alderdi bakarra EAJ izan zen. Gaur egun bizi dugun krisi egoera dela-eta, zergak izoztea proposatu zuen EAJk, herritarrei ahalegin handiagoa eskatu beharrean, Udala izan dadin esfortzua egiten duena, dituen gastuak bildutako dirura doitu.

Baina EAJk egindako proposamena ez zen onartua izan, eta bai Bilduk eta baita Orainek ere herritarrek gehiago ordaintzearen aukeraren aldeko proposamena aukeratu zuten. ■ **Orioko EAJ**

Eta orain, zer?

Auzitegi Gorenak berretsi egin du Muntoko Plan Partzialaren ilegaltasuna. Bai, hala da; 2012ko urriaren 25ean kaleratutako sententzian, Auzitegi Gorenak atzera bota du Orioko Udalak, eta Grupo Eibar eta Inmobiliaria Orio enpresek Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Gorenak 2012eko azaroaren 17an Muntoko Plan Partzialaren aurka igorritako sententziaren aurrean jarritako helegitea. Arkupeko blogean ikusgai duzue:

<http://blogs.diariovasco.com/arkupe/>

Aipatu sententzian, Auzitegi Gorenak erabat baliogabetu ditu Orioko Udalak nahiz Grupo Eibarrek eta Inmobiliaria Oriok bere egin dituen argudio guztiak, eta aldi berean balioztatu Arkupe elkar-tearenak eta Ezker-Batuarenak.

Ezin ezkutatu dezakegu hartu dugun lasaitasuna. Bide luzea gogorra izan da: hasiera hasieratik zaila, herritar bezala gure eskubideak gauzatzea erabaki genuenetik. Baina auzitegiek arrazoi eman digute. Eta orain, zer? Bada, iritsi dela norberak bere ardurak beregain hartu eta besteei ardurak exijitzekoa. Bestetik, Orioko alkateari eskatu nahi diogu hauteskunde kanpainan agindutako gardentasunez informatu dezala Orio herriaren egungo hirigintza egoera.

Aldi berean, beren sinadurekin babes-tziguten ehunka oriotarrei jakinarazi

nahi diegu Orioko merkataritza txikiaren alde lanean jarraituko dugula, krisi garaiotan inoiz baino beharrezkoagoa izanik. Ezker Batuko Iñaki Garcia Aranbarri-ri ere eskertu nahi diogu; agertutako konpromisoagatik, eta egin-dako

lanagatik. ■ **Orioko dendar, ostalari eta profesionalen Arkupe elkarte.**

Euskaraz bizi herrixka globalean

Globalizazioa: oso urte gutxitan planetakoak bihurtu gara. McLuhanen iragarpen famatua orain ulertzen da, 50 urte beranduago. Mundua herrixka bat da, lehen guztiz exotiko zitzaizkigun parajeak eta errealtateak orain hurbilekoak ditugu. Handitu egin da munduarekin partekatzen duguna eta higitu berezkoaren esparrua.

Identitatea: aurreko joerak berak piztu du beste bat orekatzailea: erabat uniforme izateari uko egin eta identitateari eustekoa. Eta hau akuilu bihurtu da izaera gordetzen duten komunitateentzat, batez ere berezko hizkuntza dutenentzat. Globalak ez diren hizkuntzak -hau da, ia guztiak- aldarrikatzen dira gero eta gehiago. Uholde globalari eusteko, norberetik eta norberaren hizkuntzan.

Amarauna: globalizazioaren tresna nagusia hedabide globalak izan dira, horiei esker bilakatu da herrixka lehen planeta zena. Sare laukidunak lotzen gaitu munduarekin, hurbilekoa eta urrunkoa maila berean jarrita. Aldiz gure egunerokoa hurbilean gauzatzen da zati handian, oraindik. Sare laukidunean baino, amaraunean: gu erdigunean, hurbilekoa ondoan, urrunkoa harago. Hedabideak behar hurbilekoa kontatzeko.

Euskara: euskaldunon berezko hizkuntza, mende luzez ahuldua batzuk eta besteek, azken hamarkadetan suspertu nahi duguna. Badu gaitasunik, ari da irabazten hiztunak eta esparruak, behar du bere komunitatearen nahia. Behar du euskalduna jabetzea euskarak nortasuna ematen diola munduan egoteko.

Euskara herria: euskararen herrian orain minoria da bere hiztunen komunitatea. Ez da bilakaera naturala izan, behartua baizik. Eta ez da derrigorrezkoa, ez eta atzeraezina ere. Kontua da eraginen norabidea aldatzea eta alde jartzea, euskara bizi dadin. Hiztunen nahia behar da horretarako. Euskaldun bizi nahi sendoa eta konbentzimendu handia. Eta -zer esanik ez- aukera berdintasuna, baldintza egokiak, ahalmendunaren bulkada...

26. orrialdean jarraitzen du

Orioko bizikidetza nolakoa den aztertzen ari da Bakeola fundazioa

Bizikidetza, giza eskubide eta bakerako heziketari buruz herriko eragile politiko, sozial eta hezkuntza arlokoek duten iritzia jasotzea da helburua, ondoren dauden gatazkei konponbidea emateko

Bakeola-EDE Fundazioarekin batera, azterketa bat egiten ari da Orioko Udala herriko Bizikidetza eta Giza Eskubideen diagnostikoa eta dagokion Udal Plana garatzeko.

Ikerketaren helburu nagusia bizikidetza, giza eskubide eta bakerako heziketari buruzko Orioko eragile politiko, sozial eta hezkuntza arlokoen iritzia jasotzea da. Gaur egungo egoeraren eta premia orokorren berri izan ondoren, ekintza proposamenak aurkeztea da asmoa.

Horretarako, lehenengo, elkarrizketak egin dizkiete Bakeolakoek Udal Gobernuko ordezkari politikoei. Bestalde, teknikariekin ere bi saio izan dira herriaren inguruko iritziak eta beren arloko gatazka eta zailtasunen berri jasotzeko. Herriko elkarte, erakunde, gizarte eta hezkuntza alorretako ordezkariarekin lehen saiakera egin ondoren, ez zen behar beste jende agertu, eta aste honetan ziren elkartzekoak berriz. Bakeolako Maider Martiarenaren hitzetan, *beharbada*

ez zaie iruditu deialdia berentzat denik edo gai horiburuz beren iritzia beharrezkoa denik. Orion gauza batzuek oso ongi funtzionatzen dutela pentsa dezakete eta horiei eutsi nahi dietela. Bizikidetzan, elkar ulertzen eta elkarrekin giro onean bizitzen laguntzen du horrek. Baina era negatiboan eragiten duten gatazkak, gaizki ulertuak, zurrumurruak eta hainbat indarkeria mota ere badaude. Horiek zein diren jakin nahi dugu, aurrera begira, Udaletik edo bakoitzak bere elkartetik zein hezkuntza arlotik ekimenak egiteko, bizikidetza hobetzeko eta gaur egun bizi diren arazoei buelta emateko.

Gatazka guztiei erantzun

Topaketetan, besteak beste, honako gaiak landu dituzte: herrian, bizilagunen artean, ikastetxeetan, elkarrekin eta abarretan bizi diren gatazkak eta horiek harremanetan nola eragiten duten; azken urteetan herritarren arteko giroa ontzen edo txartzen laguntzen duten

egitasmoak zeintzuk diren; herriko biztanle guztiek giza eskubideak bermatuta al dauzkaten eta, hala ez bada, zergatik eta zeregin beharko litzatekeen hori bermatzeko...

Saio horietatik Orioko egoeraren argazkia aterako dute eta gero arlo bakoitzean irtenbideak aurkitu beharko dituzte. Oraindik ondorioak ateratzeko goiz bada ere, *bakoitzak bere esparruan ikusten ditu garrantzitsu zaizkion gatazka txikiak; badira arlo guztietan errepikatzen direnak ere. Herriak den-denei eman beharko die erantzun egokia. Guztiei eragiten dien gatazka bada, are eta garrantzia gehiago du, eta denen artean konpontzea komeni da dio Martiarenak.*

Otsailerako prest

Abendurako bukatu nahi dituzte topaketak. Bakeolak berak Orioko herriaren diagnostikoa egin ondoren, ildo batzuk zehaztuta eduki nahi ditu otsailerako. Lan teknikoa eta balorazioa egingo du Bakeolak eta txostena Udalaren esku jarritakoan, Udalak erabakiko du zein den behar gehien duen esparrua. Hor jarriko ditu martxan herriko errealitatera moldatutako ekimenak.



Hezkuntzako ordezkariarekin elkartu ziren Bakeolako Fundazioko kideak udaletxean beren iritzia jasotzeko. KARKARA

Udal-zerbitzuetako lan-hizkuntza euskara izan dadin nahi du Udalak

Hizkuntza politikaren arau nagusiak biltzen dituen dekalogo onartu dute alde batetik; eta euskaraz aritzea eskertzen duen kartela zintzilikatu dute bestetik udal eraikinetan

Orion euskararen erabilera normalizatzeko ahaleginean, aurrerapauso garrantzitsuak eman ditu azken urteotan Orioko Udalak. Besteak beste, AEKrekin elkarlanean urtero-urtero euskara eskolak martxan jartzeaz gain, hizkuntza politikaren dekalogo onartu berri du aurtengoan, euskara sustatzeko kanpainen baitan. Udaletxeko, Kultur Etxeko eta kiroldegiko sarreretan zintzilikatu ditu

hizkuntza politikaren 10 arau nagusiak biltzen dituzten kartelak.

Udal Elkartearen proposamenari jarraituz, eskualdeko herri guztietan onartu dute dekalogo bera, gainera.

Horrez gain, ahalik eta egoera gehienetan eguneroko lan hizkuntza euskara izan dadin, *Eskerrik asko euskaraz lan egiten laguntzeagatik* mezua zabaldu du Udalak, udal-lanpostu guztietan jarri di-

tuzten karteltxo bidez. Herritarrek Udalarekin duten harremana, idatzia nahiz ahozkoa izan, euskaraz izatera bultzatu nahi dute Udaletik horrela.

Herritarren jarreran eragitea garrantzitsua dela ulertuta, eredu izan eta Udaleko zerbitzu guztiak euskaraz emateko gaitasuna baduela erakutsi du Udalak.

TELP

Udalak antolatuta, euskaraz eroso eta lasai aritzeko teknikak erakusteko TELP (Taller d'Espai Lingüístic Personal) ikastaroa bukatu berri dute 7 lagunek Orion. Azaroaren 10ean hasi eta 3 larunbatez segidan bildu dira Kultur Etxean.

EMUN kooperatibako Ainhoa Lasa izan dute irakasle eta euskal gizartearen egunerokoan euskara ahalik eta gehien erabiltzeko estrategien nondik norakoa azaldu dizkie ikastaroan parte hartu duten euskaltzaleei: esate baterako, *Horrek, daukan itxurarekin, ez dit ulertuko eta, beraz, gaztelaniaz egingo diot hasieratik –edo ez du inoiz euskaraz egiten eta, beraz, ulertu ere ez du egingo noski, eta, hortaz, gaztelaniaz egingo diot; edo Euskaraz eskatu diot ordua eta ematen du ez duela ulertu; beraz, gaztelaniaz egingo diot–* bezalako interpretazio okerren orde, *Zuk erabil ezazu nahi duzun hizkuntza eta nik euskaraz hitz egingo dizut, hala nahiago dudalako. Zerbait ulertzen ez baduzu, adieraziko didazu* modukoak erabiltzen trebatu dira TELPen.

Jabier Zabaleta euskara teknikariaren hitzetan jende gutxi animatu bada ere, parte hartu duten horiek ikasitakoa praktikan jartzen duten neurrian emango ditu fruituak ikastaroak.



Euskaraz eroso eta lasai aritzeko teknikak ikasi dituzte TELP ikastaroan. KARKARA

LABUR

Kultura

Korrika badator

Korrika 18a prestatzeko lanak abian dira. Eman euskara elkarri lelopean, Andoaindik Baionara joango da euskararen aldeko lasterketa martxoaren 14tik 24ra bitartean. Korrika eta herriko ekintzak prestatzeko oriotarren laguntza ezinbestekoa dela diote antolatzaileek eta horretarako batzorde bat sortu dute. Lehen batzarra egin ondoren, abenduaren 20an izango da hurrengoa 17:30ean Kultur Etxean.

Lertxundiri Argizaiola saria

Durangoko Azokak ematen duen saria da Argizaiola saria. Aurtengoan, Benito Lertxundiri ematea erabaki dute azokaren antolatzaileek, beren ekimenarekin izan duen harremana estua izan delako. Lertxundik abenduaren 6an, sanikolas egunean, jasoko du saria horretarako propio egingo den *Gauean Argi* ekitaldi berezian, Jon Maiak, aurkezleak, aurreratu duenez. Durangoko Azokarekin izandako loturaz gain, 60. hamarkadatik hona euskal musika eta kultur gintzan erreferente izatea ere aitortzen dion saria dela gaineratu dute antolatzaileek.

Aulestia 2. kantu txapelketan

Azaroaren 18an jokatu zen Gipuzkoako Kantu Txapelketaren finala. Bertan izan ziren Orioko *Uhats* taldea ordezkatzuz Eneritz Aulestia, Iñaki Lizarralde eta Intza Unanue bakarlari lanetan. Bakoitza bakarlari bezala lehiatu zen, nahiz eta batzuk besteei koroak egin. Koroetan Olatz Lizasoren laguntza ere izan zuten, eta Julien Alonso eta Iker Urdangarin izan zituzten musika tresnekin. Gauzak horrela, Eneritz Aulestia zaraiztarrek bigarren izatea lortu zuen *Uhats* taldearekin batera. Aulestia abestu zuen kantua Olatz Zugastirena da, Goiuri Unanuren hitzekin.



Erabakia jakin eta gero ere, aurrera doaz Muntoko lanak. KARKARA

Gorenak Muntoko Plan Partziala baliogabetu du

EB-Berdeak taldeak bere garaian jarritako salaketa berretsi du Madrilgo Auzitegi Nagusiak, urriaren 25ean argitaratutako epaiaren bitartez.

Muntoko eremuari dagokion Ikerketa Hidrologikoa Plan Partzialarekin batera jendaurrean jartzera behartu berri ditu Madrilgo Auzitegi Nagusiak Orioko Udala eta Muntoko lanak gauzatzeko ardura duen enpresaren ordezkariak. Hala adierazi du urriaren 25ean argitaratutako epaiak.

Horrela, EB-Berdeak taldeak bere garaian jarritako salaketa berretsi eta Udalak eta Muntoko lanak egitearen ardura duten enpresek elkarrekin aurkeztutako aurkako kasazio-errekurtsoa gaitzetsi ditu.

Horrez gain, Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiak hartutako bi erabakia gogorarazi ditu Eduardo Calvo Rojasek zuzendutako epaitegiak: Orioko Arau Subsidiarioen Berrikustea oso-osorik baliogabetzen duena da bat; eta Arau Subsidiarioen Moldatutako Testua oso-osorik baliogabetzen duena, bestea.

Epaia arabera, gainera, kasazio-errekurtsoa jarri dutenek, Orioko Udalak eta Muntoko eremuko eraikitzaileek, alegia, erdira ordaindu beharko dituzte azken epaiketa honek eragindako gastu

guztia.

Madrilgo Auzitegi Nagusira iritsita, epaia behin betikoa da, eta, hortaz, ezin da helegiterik jarri.

Bide luzea

2005eko abuztuan onartu zuten lehen aldiz Muntoko Plan Partziala Orioko Udalbatzarrean. 2006ko martxoan jarri zuten jendaurrean, eta 2006ko irailean aurkeztu zen Muntoko lur-sailak urpean geratzeko duen arriskua aztertzen duen Plan Hidrologikoa. Ordutik hona ia eten-

gabean izan da Plan hori hizpide epaitegietan.

Auzitegietatik joan-etorrien artean, ikerketa hidrauliko hori publiko egitera behartu zuen Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiak Udala 2010eko otsailan.

Urte berean jarri zuten Orioko Udalak eta Muntoko lana egitearen ardura duen enpresako batzarkideek epai horren aurkako kasazio-helegitea. Madrilgo Auzitegi Nagusiak errekurtsua bideratzea onartu zuen eta salatzaileari, EB-Berdeaki, oposizioa gauzatzeko aukera eman zion.

Bi urte geroago, pasa den urrian, eztabaidatu eta bozkatu du helegitea Madrilgo Auzitegi Nagusiak, EB-Berdeaken eskakizunak onartuz.

Erantzunak

Orioko Udaleko iturrien arabera, Plan Hidrologikoa egona dago jendaurrean eta Eusko Jaurlaritzako Uraren Euskal Agentziako teknikarien eskuetatik ere pasa da; eta ez zuen inork helegiterik jarri; baina epaiketa hau hasi ondorengo denez, auzitik kanpo geratu da.

Bildu koalizioa bestalde, erantzuna ematekoa da egunotan eta prentsa ohar baten bitartez jakinaraziko omen du Muntoko epaiketa honen harira esateko duena.

ZENBAKIA

9

Dokumentu. Muntoko lanek ekarritako auzi guztien kontsulta edo jarraipena egiteko epaiketa-agiri ugari zintzilikatu ditu Orioko merkatarien Arkupe elkarteak bere blogean: blogs.diariovasco.com/arkupe/. Horrez gain, azken epaiketa honi buruzko gutuna argitaratu du KARKARAN, 3. orrian.



KARKARA

“Kolore horiak erakarri nau Orioko Futbol Taldea entrenatzera”

Josu Solaberrieta

Orioko Futbol Taldeko entrenatzailea

Zarautz, Añorga, Lagun Onak... hainbat taldetan jokalaria ibili eta gero Orion ari da jokatzen azken denboraldietan Solaberrieta. Nesken taldea zuzendu eta gero, jokatzen duen talde bereko entrenatzaile lanetan aritzea izan du azken erronka

IKER GURRUTXAGA

Urte eta erdi Orioko Futbol Taldeko neskak entrenatzen egin eta gero hartu du mutilen lehen taldea prestatzeko ardurara. Eskola kirolean eta futbol eskolan ere aritua da aurretik.

Nola hartu zenuen erabakia?

Hasieran ezetz esan nuen. Baina, *Makatz*a eta koadrila norbaiten bila ari zirela ikusita, deitu eta kargua onartzen nuela esan nion *Makatz*ari. Joxe Martin Alguacil *Safa* eta Urko Aldalur lagun hartu eta hiruron artean daramagu aurrera

erregional mailako taldea. Kolore horiak erakarri nau.

Nola banatzen duzue lana?

*Safa*k atezainak entrenatzen ditu eta Urkok nire laguntzaile lana egiten du; izan ere, orain arteko partida guztiak jokatatu ditut. Gainera, jarrera guztiz desberdina daukagu, nik ez daukat pazientziarik eta haiek lasaiak dira nire aldean. Hor ere laguntza handia ematen didate.

Jokalaria eta entrenatzailea zara aldi berean. Zaila izango da hori, ezta?

Jokatzen dudana taldea entrenatzea uste baino errazago daramat. Taldekideek ere lehen unetik ikusi ninduten entrenatzaile bezala, eta oso ondo hartu zuten nire erabakia. Dudan izaerak ere asko laguntzen du. Zelaitik kanpora, gainera, lehen bezalakoxea da jokalariekin dudana harremana. Aldagelan *txipa* aldatu eta entrenatzailea naiz, baina saioa bukatutakoan lehengo bera izatera pasatzen naiz. Hasieratik hori horrela izatea nahi nuen, eta momentuz hala da.

Baina koadrila oso gaztea da.

Safa da helduena, gero ni eta hurrengoak 85ean jaiotakoak. Tarte handia dago batzuetatik besteetara. Gehienek 20 urte inguru dauzkate. Aldaketa behar zuten, 6 urte zeramatzan Jaime Coladok eta asko dira horiek. Jokalarien eta entrenatzailearen arteko harremana asko aldatzen da denbora horretan eta jokalariek gaina hartzen diete entrenatzaileei.

Egiten ari zaren lanarekin gustura?

Bat sekula ez dago nahi bezain gustura. Lehenengo bost postuetan jokatzekeo taldea daukagu eta hori da nire helburua. Prestakuntza fisikoa lagun batekin lantzen dut eta gero taldera eramaten dut. Bartzelonak egiten duen jokoa nahiko genuke egin talde guztiek, baina hori ezinezkoa da. Horregatik, nagoen mailari eta dudana taldeari egokitu beharra dut nire lana. Ideia batzuk jarri dizkiet arbelean eta zorionez azken partidetan zelaian islatu dituzte ideia horiek. Gero, emaitza positiboa izan ala ez nik esana egin badute, oso gustura geratzen naiz, horrek balio baitu gehien entrenatzaile batentzat. Jokalariek nigan konfiantza izatea gauza handia da.

Batzuetan estresagarria ere bada. Lehen motxila prestatu eta entrenatzera joaten nintzen. Orain buruari buelta gehiago ematen dizkiot: batzuk besteek baino gehiago jokatzen dutelako, deialdiak egin behar ditudalako... guztiak eragiten du gero nigan.

Harmailetak giroa ona al da?

Oriotik kanpora jokatatu dut eta hemen bezalako zalerik ez dut inon aurkitu. Gure mailan kanpora joaten garenean ez da ia inor egoten partidak ikusten, eta Orion harmaila bete egiten da.



Iazko hiru azkarrenak; Ziani -7 kilometroan irabazle-, Kaanache eta Blanco -14 km-. ORIOKO IKASTOLA

Orioko Herri Lasterketa izango da datorren abenduaren 16an

Proba urrian egitekoak baziren ere, dataz aldatzea erabaki zuten beste lasterketa batzuekin batera ez izateko. Bi distantzia izango ditu, 7 kilometro eta 14 kilometro

Azaroaren 11n izan zen Behobiatik Donostiarako lasterketa eta haren jiran beti izaten dira beste hainbat proba inguruko herrietan. Horren harira, Orioko Herri Ikastolakurrirako antolatutako Orioko Herri Lasterketa, baina, aurren, beste probekin batera egin ez zedin, abenduaren 16a atzeratu dute.

Proba herrikoia izatea da antolatzaileen helburua, eta bi distantzia izango ditu lasterketaren ibilbideak ondorioz, korrikalari guztien nahiak asetzeko. Ibilbide luzeak 14 kilometro izango ditu, eta laburrak, berriz, 7 kilometro. Korrikalariak erri bazterretikarituko diralasterka eta hondartza eta Ortzaiak izango dira ibilbidearen mugak.

Lasterketa 11:00etan hasiko da, bai distantzia laburrean eta baita luzean ere. Horretarako, 09:30ean hasiko dira dortsalak banatzen.

Izena ematea

Orioko Herri Lasterketan parte hartu nahi dutenek ikastolaren webgunean

edo <http://www.herrikrossa.com> atarian eman dezakete izena. Parte-hartzaile bakoitzak 12 euro ordaindu beharko ditu. Informazio gehiagorako, idatzi oriokoherrilasterketa@gmail.com helbidera edo deitu 658 723 233 telefono zenbakira.

Bi distantzietan irabazleek sari berdinak jasoko dituzte nesketan eta mutiletan: txapela, oroigarria eta 40 euroko erosketa txartela. Gainontzeko sariak 14 kilometroko proban parte hartuko duten neska mutilentzat izango dira. Bigarren eta hirugarren sailkatuei, eta lehen oriotarrei ere, oroigarria eta 40 euroko erosketa txartela emango zaizkie.

Behobi-Donostia lasterketa

Aurren Orioko eta Aiako 110 korrikalari iritsi dira Donostiako Bulebarreko helmugara. Gizonezkoetan, Aitor Rubio izan da azkarrena, 1:11:26ko denborarekin. Emakumezkoetan, berriz, Ainhoa Imaz izan da bizkorrena, kronoa 1:27:49an geratuta.

LABUR

Arrauna


Arkaitz Goñi indoor-ean

Azaroaren 17an egin zuten Donostiako Benta Berri kiroldegian Donostiako 14. Indoor Arraunketa Estropada Herrikoia. Hamabi urteko neska-mutiletatik hasi eta 79 urte artekoentzat hainbat mailatan banatutako probak egiten dituzte bertan. Arkaitz Goñi Orio AEko arraunlariak 30-39 urte bitarteko gizonezkoetan hartu zuen parte eta denborarik onena egin zuen, 6 minutu eta 21 segundoko denboran beteta 2.000 metroak. Bigarren Sorin Manole izan zen, eta Goñik baino 16 segundo gehiago behar izan zituen proba bukatzeko.

Dardoak

Unanue 4. Europako txapelketan

Azaroaren 3an eta 4an jokatu zuten Porton Europako bakarkako dardo txapelketa. Han izan zen Joseba Unanue oriotarra beste 223 dardo jaurtitzailerekin batera. Euskal ordezkari bakarra izan zen Unanue eta 4. bukatu zuen lan ona egin eta gero. *Krisia dela-eta jende gutxiagok hartu du parte, baina maila mantendu egin da.* Pozik dago egindako lanarekin Joseba Unanue.



KARKARA

“Plazan arnas berotu arren idiei ez diegu tratu txarrik ematen”

Patxi Arzadun
Itzaina

Zuzen dihoan idiari, akuilurik ez dio esaerak. Zuzen dabilena Etxebarri baserriko itzaina da, idiak akuiluarekin zirikatu eta demetan marka onak egiten dituen. Artzadun lehen aiarra izan zen hilaren hasieran jokaturako kintopeko idi-probetan

IRATI AGIRREAZALDEGI

Gaztetatik aritu izan da Patxi Arzadun idiak gobernatzen. Bere aginduetara gogor aritzen dira idiak lanean. Horren erakusle lehiaketetan lortutako sariak.

Noiz hasi zinen itzain lanetan?

Probetan 1975ean, tailerreko nagusiak idiak zeuzkan eta harekin. 1977an utzi zion hark eta gero nire kontura hasi nintzen. Utzita egon banaiz ere, azken aldiari gehiago ari naiz. Hiru anaiok ibiltzen gara, iloba lagun.

Aian beti egon da idi-probetarako joera.

Bai. Baserriarrak bata bestearekin desafioan ibiltzetik dator ohitura. Lehen baino gutxiago izan arren, baserrietan idi gutxiago dago-eta, oraindik egiten dira idi-probak. Ikustera ere aurten kintopeko idi-probetara jende asko etorri da Aiara. Idi berriek jende gehiago mugitzen dute, zaharrak ikusita daude-eta.

Herrian jokatzeari berezia al da?

Zenbat eta gertuago guretzat hobe, eta herriko jendea inguruan izatea beti da gustuko, haien animoak jasotzeko. Aian

lehenengo izateak poza ematen du. Bakoitza ahalik eta ondoen egitera joaten da eta lehia izanik, *pika* pixka bat badago gure artean.

Nola prestatzen dituzu idiak?

Ahal badut egunero ordubete ibiltzen ditut. Gainera, teilapea jarri dugu argiarekin, neguan ere entrenatzeko. Gurpilazalari tiraka ibiltzen dira idiak. Denboraz justu ibiltzen naiz, tailerreko lanaz gain, batean eta bestean probetako idiak ferratzen baititut. Orain dela hiru urte hasi nintzen. Lehen, etxean ibiltzeko ferratzen nituen, baina probetarako beste ferratzaile bat ekartzen nuen. Hura erretiratu zenean hasi nintzen nireak eta besteak ferratzen.

“Kintopeko idi-probek jende dezente erakartzen dute idi berriek jende gehiago mugitzen baitute, zaharrak ikusita daude-eta”

“Itxurak berak erakusten du idi bat ongi gobernatuta dagoen ala ez. Baina hori proba aurreko azken bi egunetan eginda ez da lortzen”

Idiaren irudia ere zaintzen al duzu?

Ahal dela bai. Horretarako ahalik eta ondoen gobernatu behar dira, jaten ongi emanez. Ilajea txukun izatea ez da erraza, baina horretan ere saiatzen naiz. Garbitzea ere beharrezkoa da. Itxurak berak erakusten du idi bat ongi gobernatuta dagoen ala ez. Baina hori proba aurreko azken bi egunetan eginda ez da lortzen.

Badira idiak probetan ibiltzea animaliei tratu txarra ematea dela diotenak.

Tratu txarra denik ez dut uste. Jendeak uste duena baino hobeto zainduta egoten dira idi horiek. Plazan harriari tiraka ari direnean baliteke arnasa pixka bat berotzea, baina etxera ekarritakoan infekzioen bat-edo duela ikusiz gero, txertoren bat ematen diogu edo ohi baino hobeto zaintzen dugu.

Zein proba duzu hurrena?

Azkoitian kintopeko idi-probetarako izena eman dut sanandresetarako, eta abenduaren 3an jokatzekoa naiz. Hara-ko dudari idi parearekin gustura nago, Aiara eraman nituenek hiru proba bako-rrik egin dituzte. Azkoitikoa Aiako bai-no harri gogorrakoa da, hala ere, denontzat da berdina. Animalia batzuek harri finarekin hobeto aritzen dira eta besteak gogorrakoa ere, baina nireak ongi moldatuko direla uste dut.

Iazkoa baino %25 txikiagoa izango da Aiako Udal aurrekontua 2013an

Guztira 2.511.003 eurokoa izango da datorren urteko aurrekontua eta inbertsioetan izan dira murrizketa nagusiak. Tasak eta zergak %3,1 igotzea erabaki dute, ibilgailuena eta urarena salbu.

Azaroaren 21ean egin zuten Udalbatzarrera Aiako udaletxean, eta 2013ko aurrekontua eta ordenantza fiskalak jarri zituzten mahai gainean.

EAJren baieztoko sei botorekin eta Bilduren aurkako bostekin onartu zuten 2013rako Udal aurrekontua, 2.511.003 eurokoa. Iazkoarekin alderatuta %25 txikiagoa izango da. Murrizketa, batik bat, inbertsioen arloan egin dute; izan ere, 1.400.000 euroko inbertsioak aurreikusituzten iaz, eta aurtan 700.000 eurokoak. Gainontzeko ataletan aurrekontuari eutsi egin diote.

Inbertsioak honako lanetara bideratuko dituztela jakinarazi zuten: 2013an egitekoak diren hilerri inguruko ibilbiderako 330.000 euro; igerilekuaren berritze lanak amaitzeko 65.000 euro; Elcano frontoiarekin jarraitzeko 100.000 euro; baserri bide eta azpiegiturarako 60.000 euro; eta eskola berriarekin lanean jarraitzeko 70.000 euro.

Bestalde, turismoaren garapenarekin ere aurrera jarraituko dutela adierazi du Igor Iturain alkateak: *herriarentzat diru iturri dela uste dugun heinean*. Horrez gain, Altzerriko kobarekin lanean jarraituko dutela ere esan du: *jakinda helburua dela daukagun ondarea gizarteratzea eta gure aurrekoen bizimodua gaurko gizar-tearekin partekatzea. Hori gure herriaren kultura inbertitzea da*. Euskara arloan ere apustua egin dute euskara eskolak herrian bultzatuz eta herritarrei euskaraz hitz egiteko baliabideak emanez. Horren harira aurtan alfabetatzeko laguntza bide berri bat ere irekiko dute.

Gizarte zerbitzuetan aurrekontua mantendu egin dute eta azken beharretara egokitu, sail horretara 250.000 euro bideratuz.

Bilduren ezezkoa

Ezezko botoa eman zieten Bilduko 5 zinegotziek 2013ko aurrekontuari. Haien esanetan, *2012koen joera bera erakutsi dutelako*. Aritz Arrutik azaldu du Elkanoko pilotaleku eta txokoaren proiektuarekin jarraitzea ez zaiela egokia iruditzen, Zarauzko lurretan egonik Zarauzko Udala ez dagoelako ordaintzeko prest



EAJko eta Bilduko zinegotziak Aiako Udalbatzarren aretoan. AIORA LARRAÑAGA

eta Aiak dena ordaintzea ez delako bidezkoa. Iturainek horren harira erantzun du 2011ko hauteskundeetan emandako hitza bete egingo dutela.

EAJren ustez, Altzerriko proiektuan inbertitzea, kultura inbertitzea da. Bilduk nahiago du herriko beste proiektu batzuen alde egin

Altzerriko proiektuan gastatu nahi den dirua herriko beste behar batzuetan inbertitu beharko litzatekeela ere uste du Bilduk. Gastu horien artean aipatu dituzte ur zikinak zelai eta erreketara isurtzen direla. Horiek araztegi bideratzeko azpiegiturarik ez dagoenez, lehentasuneko inbertsioa izan behar luke koalizioaren ustez. Iturainek dio bi urtez aritu dela Foru Aldundiari Aiako ur zikinak araztegi bideratzeko bigarren fasea martxan jartzeko eskatzen, baina lehentasunetik duela erantzun diotela.

Ordenantza fiskalak

Ordenantza fiskalak ere onartu egin zituzten EAJren aldeko 6 botorekin eta Bilduren kontrako 5 botorekin. Tasak eta zergak %3,1 igotzea erabaki zuten -2011ko irailetik 2012ko irailera- KPIa-. Igoko ez den zerga ibilgailuen gainekoa da, izoztu egin baitute. Tasetan, berriz, urari dagokiona %1 igoko da.

Bildu ez dago ados zaborren tasari dagokionez; birziklatzea eta ingurumena zaintzeko jarrera bultzatzeko asmoz, autokonposta egiten duten etxe-jabeek zaborren tasan %20ko hobaria izatea nahi du. Udalak, ordea ez du proposamena onartu. EAJ alderditik azaldu dute, batetik, ez dutela egoki ikusi proposamena azken orduan aurkeztea; bestetik, Aiako baserrietan betidanik egin dela konposta eta ez dutela konposta egiten etxean edukiontzia dutenek bakarrik. Gainera, hori kontrolatzea oso zaila omen da eta proposamena azken orduan egin izanak gaia aztertzei aukerarik gabe utzi ditu.

Gutun zaharren usaina

Duela egun batzuk hitzaldi bat izan genuen unibertsi-tatean. Hizlaria zinez inter-esgarria zen, eta hark hela-razten zizkigun mezu eta aholku garrantzitsuenak jasotzeko as-moz joan ginen agerraldira. Boligrafoa eskuan nuen, baina orri zuria falta. Bati eta besteari galdezka hasi nintzen, baina inork ez zuen orririk. Denak, ordenagai-lua piztuta, prest zeuden gonbidatuaren hitzak entzuteko. Zer pentsatua eman zidan egun hartan gertatu zenak eta nire hausnarketa partekatzea interesgarria izan daitekeela pentsatu dut.

Azken hogeitaz urteotako belaunaldiak teknologia berrien belaunaldiak direla esan dezakegu. Ia-ia, internet eta gaur egungo aplikazio berriekin jaio ginen eta

horiekin hazi eta hezi gara, sehaska albo-an izan ditugula. Begiratu dezagun atze-ra, ordea: zenbat denboran aldatu da guztia?

Olentzerori idazten genizkion gutu-nak, atzeritik bidali eta jasotzen geni-tuen postalak, errebelatutako hogeita lau argazkiko karreteak, orduak lapur-tzen zizkiguten liburu mardulak, izorra-tzen ez ziren kasete zaharkituak, maita-sun hitz goxoz jositako eskutitz luzeak...

Ilusioa, tristura, lilura, poza, urdurita-suna, egonezina. Zenbat sentimendu eta oroitzapen gordetzen ote ditugun eus-karri horietan itsatsita. Ziur aski, gure ondorengoek ezagutuko ez dituzten bi-zipenak dira.

Ezin da ukatu; ez da gauza bera sare sozialetan bitartez igorritako mezua edo zigilu zahar bat itsatsita duen gutuna. Gutuna ukitu egin dezakezu, usaindu; eta urteak joan arren, zure logelako ar-mairu handi horretako bigarren tirade-ran gordeta jarraituko du. Ikusten du-zun bakoitzean pertsona berezi horre-kin oroitu zara; gomuta hilezkorra izango da.

Aurrera goaz, baina iragana albora-tzea atzera pausoa dela ahaztu zaigu. Sentimenduaren eta ilusioaren balioa alde batera laga eta praktikotasunari soilik eman diogu garrantzia.

Jada berandu al da horretaz kontura-tzeko? Oraindik baduzu abagunea maite dituzun horiei hitz gutxi batzuekin egu-na alaitzeko.



Txokoak eta jendea

Hori da
zorte ona

Pasa den asteburuan, Lardizabal Eskolako Guraso Elkartek antola-tuta gaztain jana, ipuin kontalariak... izan ziren Aian. Bizikleta eta otar eder bat zozketatu zituzten eta baita biak etxe berera joan ere. Ez da-kigu zenbaki asko erosi edo zorte handia izan zuten alde. Zorionak Jose Andres Lertxundi, Miren Dorronsoro, Allende eta Dona!



ESTROPADAN HONDORATUTAKOAK

Argazki hau ezaguna egingo zaio bati baino gehiagori. Askok, Luis Azkuek egin zuen *Orio en el remo* liburuan ikusiko zenuten. Beste batzuk, etxean izango duzue, argazki gogoangarria baita. Beste mordo batek, berriz, Kultur Etxean ikusiko zenuten argazkia. Sarreran. Igogailu ondoan baitago aspaldi honetan 1935eko Kontxan hondoratu zirenenen irudia.

Urte ona izan zen 1935a arraunlariantzat. Bilboko eta Portugaleteko estropadak irabazi

zituzten. Kontxan, ordea, kanpora zihoazela hondoratu egin ziren, Santa Klara parean.

Tripulazioa: Domingo Mitxelena, Tiburtzio Etxeberria, Erramun Solaberrieta, Patxi Abaurrea, Joakin Azkue, Inazio Oliden, Inazio Manterola, Inazio Sarasua, Agustin Arri-llaga, Joxe Mari Zumeta, Pedro Urdangarin, Joxe Zumeta, *Xalmaxti* eta Joxe Zumeta, *Txanka*.

[ARGAZKIA: KUTXA FOTOTEKA INFOR.: LUIS AZKUE]

karkara

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

azkue

Tf: 943 13 04 38

Allianz

Marigre Zaldúa
aseguru agentea

Ibai Ondo, 10 behe-oina
telefonoa: 943 13 47 60
faxa: 943 83 57 52
e-maila: zaldua.delacruz.pa@allianz.es

AIRIDATZA modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO



Gorka Puertas eta Urko Esnaola sentsoredun surf taularekin. JAVIER LARREA



Kaleak garbitzeko makina bat automatizaten aritu dira Tecnalian. JAVIER LARREA



URKO
ESNAOLA
“LANAK ERREZ
GERO, SURFAK
HOZTEN DIT
NEURONEN KEA”



Ingeniaria, surflaria, bertsozalea, pianoa ikasitakoa, arraunlaria... Hainbat esparrutan ezagutu dute oriotarrek Urko Esnaola. Lan jardunari dagokionez, **robot artean** dabil azkenaldian, *Tecna* enpresan ari baita ikerkuntzan. Halere, ohi moduan, arnasa hartzeko olatu artera joaten jarraitzen du.

TESTUA: IRATI AGIRREAZALDEGI
ARGAZKIAK: JAVIER LARREA

Ingeniaritza ikasitakoa da Urko Esnaola oriotarra. Ikasten ari zela, robotika gustukoa zuela konturatuta, gai horri buruz egin zuen karrera amaierako proiektua Australian. Handikitzulita urtebetez aritu zen *Tecnun*en ikerkuntza zentroan. *Gazte Kooperanteak* programarekin, Peruko eskola batean hiru hilabetez egon zen gero, eta han zela aprobetxatuz, bidaia luzatu zuen bere zaletasuna, surfa, aitzakia hartuta. Informatika fakultatean robot batekin doktoretza egin eta *Tecna*lian ari da orain. Besteak beste, ikerketa-kontuez eta robotez aritu da hitz eta pitz gurekin.

Etxean letretakoak izanda zuk nolatan hartu zenuen zientzietarako bidea?

Zein karrera ikasi aukeratu behar zenean, biren artean nuen zalantza: Euskal Filologia edo Ingeniaritza. Euskara arloa asko gustatzen zitzaidan, bertsotan ere ibilitakoa naiz eta karrera hasitakoan ere galdetzen nion neure buruari aukeraketa egokia egin ote nuen. Baina beste alderdia ere txikitatik gustatu izan zait. Torlojuak zeuzkaten edo desmuntatu zitezkeen gauzekin ibiltzen omen nintzen gaztetan; etxean ere zerbait hondatuz gero nik konpontzen nuen sarritan. Orain ikusi dut ongi aukeratu nuela, egiten dudana benetan gustatzen zaidalako; lanetik kanpora ere hori daukat buruan, horrekin bizi naiz.

Robotekin ari zara orain lanean. Zer da robotika?

Labur azaltzeko esaten dut gureak alfer lana dirudiela; burua nola nekatu gorputza ez nekatzeko. Buruari bueltak ematen dizkiogu aplikazio bat nola automatizatu daitekeen ikusteko, eta horretan robotak laguntzen digu. Pertsona egiteko oso errepikakorra edo arriskutsua dena robot batekin egin dezake askotan.

Robotikan aritzeko bokazioa behar da?

Bai, ikerkuntzan ordu asko sartzen ditugu ikusten ez den lan asko eginez. Nola sortzen eta egiten diren ez dakizkigunak gauza ezezagun asko dago. Buruan bueltak ibiltzen ditugu ideiak eta aurrerapauso txiki bat emateko mila proba behar direnez, gustatzea ezinbestekoa da.



Jendeak robotika fikzioarekin lotzen du, baina uste ez dugun gauza askoren atzean dago robotika, ezta?

Robotika baino inteligentzia artifizialeko gauzak daude gero eta gehiago. Nabigazioko robotikatik sortu diren aurkikuntza asko gure autoetan ikusten ari gara: bakarrik aparkatzen duen autoa, adibidez. Bakarrik gidatuko duen autoa ikertzen ari dira, baina hori guregana noiz iritsiko den nork daki. Inteligentzia artifiziala interneten aplikatzen da askotan: bilatzaileetan, esaterako. Robotikatik etorri ez arren, robotikan ere erabiltzen dira horrelako gauzak.

Robotak etxean ere egin omen daitezke. Zuegin al duzu inoiz?

Horren harira galdera filosofiko bat planteatu daiteke: zer da robota eta zer makina? Batek esan dezake garbigailua makina dela eta beste batek hitz egiteko aukera jarritz gero robota izan daitekeela. Robot bat Legorekin egin daiteke. *Lego mainstorm*-ek prozesadore txiki bat du eta norbere robota egiteko, programatzeko eta motorra jartzeko aukera ematen du. Bada Legorekin egindako roboten lehiaketa bat; etxean egindako roboten beste bat ere bada, non sumo borrokak egiten dituzten. Ni berandu harrapatu naute kontu horiek eta ez dut horrelakorik etxean egin. Australian robot txiki batzuekin aritu nintzen, eta, hutsetik egin ez arren, sentore sistema berriak probatzea eta aldatzea tokatu zitzaidan. *Tecnalian* robot bat oso-osorik egin dut.

Tecnalian egindakoa da baita ere orain dela gutxi ospetsu egin den surfeko taula berezi bat, ezta?

Pukas surf etxearen eta Tecnaliaren arteko proiektua izan da. Pukasen helburua surf taula hobeak egitea da, eta taula baten baitan zer gertatzen den jakin nahi zuten. Surf taula bat deformatzen denean bere ohiko egoerara bueltatzeaz, *flexaz*, asko hitz egiten da, baina ez da apenas azterketarik egin. Hori jakitea garrantzitsua zenez, deformazioaren berri ematen duten sentoreak jartzeko




“Labur azaltzeko esaten dut gureak alfer lana dirudiela: burua nola nekatu gorputza ez nekatzeko”

“Zer da robota eta zer makina? Batek esan dezake garbigailua makina dela eta beste batek hitz egiteko aukera jarritz gero robota izan daitekeela”

“Japoniatik bi besoko robot humanoide bat ekarri genuen, *Hiro*, eta otsailetik udara arte, buru-belarri aritu naiz berarekin lanean, ia surfa uztera iritsi arte. Gizakion antza handia du: bi beso, burua, mugimendua... eta pertsonekin batera nola lan egin pentsatzera eramaten gaitu”

“Interneteko bideo batean goi mailako ikerketatik lortu den zerbait ikusten dugunean, bihar kalean izango dela pentsatzen dugu; baina ez da horrela izaten”

“Makinak erabilerrazak izatea nahi nuke, martxan jartzeko doktoretza egin duen norbait behar ez izatea; horrelako robot bat labadora bat bezain erraz erabiltzeko aukera izatea”



aukera proposatu genuen. Surfariak indarra non egiten duen ere jakin beharra zegoen; hanke egindako indarra eta mugimendua detektatzeko beste sentore batzuk jarri genituen hortaz. Surf-taulak informazio asko ematen du, entrenatzeko ere baliagarria dena. Taularen gainean gertatzen denaz gain, abiadura eta azelerazioa hartzen dira kontuan, besteak beste.

Ondorio batzuek taula batzuetan aplikatzeko balio dezakete. Esaterako, flexa gehien bat bi hanken artean gertatzen dela ikusi da, eta, hori oinarri hartuta, aplikazio bat erabiltzen ari dira. Orain probak egitea falta da, gerora taulak eta teknika hobetzeko.

Surfean ibiltzen naizenez, nire esku utzi dute proiektua Tecnalian. Hala ere, beste oriotar surfari bat ere badago gurean, Gorka Puertas. Horrez gain, Pukasen *shapera* edo taula egilea Mikel Agote da eta talde polita sortu dugu hirurok.

Beste lan aipagarriarik egin duzue?

Japoniatik bi besoko robot humanoide bat ekarri genuen, *Hiro*, eta otsailetik udara arte, buru-belarri aritu naiz berarekin lanean, ia surfa uztera iritsi arte. Gizakion antza handia du: bi beso, burua, mugimendua... eta pertsonekin batera nola lan egin pentsatzera eramaten gaitu. Robotika egiteko era berri bat da. Orain arte ikusi izan ditugun robotek gauza ikusgarriak egiten dituzte: auto bat osorik hartu eta hura soldatu, adibidez. Baina hori arriskutsua da pertsonekin lan egiteko. Robot berri hauek aukera ematen dute roboten indarra, zehaztasuna, erresistentzia eta pertsonen trebetasunak bateratzeko eta ekoizpena aurreratzeko. Pertsonaren gaitasunak eta pentsatzeko abilezia aprobetxatuz, pertsonontzat txarrak diren gauzak robotek egitea nahi dugu. Hasieran robota Airbusen aplikazio normal batean, A380 hegazkinaren hegala batean errematxeak jartzen, erabili genuen. Errematxeak bi piezatak dira. Pertsona batek zulo guztietan piezak eskuz sartu ondoren, errematxatzeko makinak estutuko li-



tuzke; lehen zatia egin zezan probatu genuen guk robota.

Orain dela gutxi *European Strategyc Manufacturing Awards-Factories of the future* saria eman digute etorkizuneko lantegi bat nolakoa izan daitekeen erakutsi genuelako.

Laster Japoniara joango naiz, sei hilabeterako, Tokioko unibertsitatean robotikari buruz ahal dudun guztia ikastera. Saritu duten *Hiro* robotarekin jarraituko dut lanean; unibertsitate horretan nahiko aurreratuta daude gaiotan. Makinak erabilerrazak izatea nahi nuke, martxan jartzeko doktoretza egin duen norbait behar ez izatea; horrelako robot bat labadora bat bezain erraz erabiltzeko aukera izatea.

Robot gehiago ere erabiltzen al duzu?

Buru-belarri jarraitzen dut robot horrekin eta nahiko aurreratua daukagun beste batekin. Talkak antzemateko sensore bereziak ditu eta pertsona bat inguruan duenean arriskua ekiditen du.

Accionarekin egin dugun proiektu baten baitan, kaleak garbitzeko makina bat automatizatzen ere aritu gara Tecnalían. Behin pertsona batekin egin beharrekoa erakutsita, lana makinak berak bakarrik egitea lortu dugu.

Azterketak egin bai, baina gero jendearen eskuetara iristen al dira?

Asko azterketa hutsean gelditzen dira, baina gero eta gehiago ari dira benetako industrian sartzen. Ikerketa sakonak egiten ditugu, baina jendearengana iristeko lan handia dago egiteko; askotan ez da ikusten. Interneteko bideo batean goi mailako ikerketatik lortu den zerbait ikusten dugunean, bihar kalean izango dela pentsatzen dugu; baina ez da horrela izaten.

Tesia 2005ean amaitu nuen nik, eta garai hartan ikerketa mailan baino ez zeuden bakarrik ibiltzen ziren robotak. Zeuden gutxi horiek errailen gainean ibiltzen ziren. Gaur egungo enpresetan edo biltegietan dauden robotak ikusme-nean oinarritzen dira.

Hiro laster kalean egotea da gure espe-

ROBOTEKERE EGITEN DUTE BERTSOTAN

Robot artean ibiltzen da Urko Esnaola, baina garai batean bertsolari eta bertsozale artean ibilitakoa ere bada. Bere proiektua ez bada ere, robotekin unibertsitatean egindako bertso saio batean gus-tura egon zen entzule: *Inteligentzia artifiziala erabiltzeko aitzakia da. Robot bertsolaria lortzea izan daiteke helburua; ni konbentzituta nago lortu daitekeela, baina horren inguruko eztabaidak izan ditugu. Datu baseetan sekulako bilaketa egin dute bertso bat egitean zerbait koherentea lortzeko. Beraz, hor egiten ari diren lana erabilgarria da interneteko aplikazioetan zuzenean erabiltzeko.*

Bertso eskolan eta eskolarteko bertso txapelketetan ibilitakoa da eta zaletasun hori betirako dela dio orain ezkontza, urtebetetze eta horrelakotan baino kantatzen ez badu ere. Hala ere, bertsolaritza jarraitzen du: txapelketak, bertso lagun izan zuen Xabier Sukiaren *Hitza Jolas* irratsaioa entzuten ere saiatzen da. *Sukiarekin eta Ibai Esoaiekin aritutakoa naiz bertsotan. Manuel Lasarterekin ibili ginen eta haiek zaletasun handia zuten, Tolosara joaten hasi ziren bertsotan egitera. Nik, ikasketak zirela-eta, joaterik ez nuen, baina Lasarterek eskaini zidan aukera astean behin bere etxera joan eta bertsoak idazten zein kantuan aritzeko eta hori pribilegioa izan zen.*

Kantuak instrumentua izaten du lagun eta pianoa izan zen Urko Esnaolaren beste zaletasunetako bat. Pianoko eskoletara derrigortuta joaten zela esan digu. *Irakaslearengana eskuak babaz beteta joaten nintzen arraunean nenbilerako, eta hark aukeratzeko esan zidan: pianoa ala arrautza. Urte batzuetan pianoko eskoletara derrigortuta joan ostean, gerora Xabier Lizasorekin ikasteko zortea izan nuen. Aldaketa sekulakoa izan zen: pianoa nire etsai izatetik gustuko izatera pasa baitzen. Gaur egun ez du pianorik etxean, baina gurasoenera joaten denean aulkian eseri eta garai haietan ikasitako lau kantuak jotzen omen ditu. Robotekin ahazteko horra beste bi modu.*



rantza, Tecnalían ez gelditzea; *Airbus* dugu bidelagun horretarako. Ikerketa hutsean gelditzen dena porrota ez izan arren, zerbait gehiago eskaini behar da. **Lanetik kanpo ere zientzia izaten duzu buruan. Mezularia irratsaioan zientzia tertulian aritzen zara.**

Iaz, Euskadi Irratian robotikari buruzko elkarrizketa bat egin eta gero, Mezularia programan zientziari eskainitako tarte bat egin nahi zutela-eta deitu zidaten. Arlo ezberdinetako hiru ikerlari elkartu gintuzten bi astean behin zientziari buruzko tertulia bat egiteko. Hasieran zientziaren inguruko albisteak eman eta horri buruz gure iritzia plazaratzea zen asmoa, baina orain bakoitzak bere arloko albisteak emanez erosoago sentitzen gara, nahiz eta gero besteen gaiei buruzko iritzia ere ematen ditugun. Nahiko joko polita sortzen da eta gure artean giro ona dago. Irratian, bertsotan bezala, hasieran urduri egon arren, bukatzen denean jarraitzeko gogoz gelditzen naiz.

Ez al duzu lanetik deskonektatzen?

Gustukoa da eta askotan, neure buruak baino gehiago, ingurukoek eskatzen dinate deskonektatzeko. Robotikaz aritzeko gogoz egoten naiz, baina batzuetan gaia alde batera utzi behar izaten da eta horretarako surfa da nire ihesbidea. Neuronak erreta dauzkadanean uretara sartzen naiz, gutxienez, ke hori hoztera.

Surfaren kontura bidaia dezente egin dut. Londresen egon nintzen ura batez *Madre Teresa de Calcutaren* erakunde batekin etxerik gabekoei laguntzen; Ruandan ere egona naiz osabari bisitan. Baina Australiakoa izan zen lehen bidaia luzea. Latinoamerikara ere joan nintzen hiru hilabeterako irakasle eta behin han nintzela Perun, Kuban, Ekuadorren eta Costa Rican izan nintzen surfear. Ondorengo bidaiak ere surfera bideratu ditut: Marokora, Brasilera, Samoara, Zeelanda Berrira eta Indonesiara behin baino gehiagotan joan naiz olatu gainean jarduteko toki ona delako. Emaztea eta biok urtean behin horrelako bidaia bat egiten saiatzen gara.

Independentzia

Anaiak lehenengo jaunartzea egin eta hurrengo eguean lortu nuen bizitzan aurrenengoz nire espazio propioa. Ondo gogoan dut lehenengoz niretzat bakarrik ohe oso bat izan nuenekoa. Aurretik, hiru anai-arrebok gela berean egiten genuen lo. Anaiak ohe batean, ahizpak eta biak bes-tean. Onartu beharra dut ahizpa gazteagoa izanagatik ere behin baino gehiagotan, lotan ginela, ohetik lurrera bota ninduela. Ordudanik datorkio kabitu ezina, nonbait *–Eli, barkaia, publikoki kitatu beharra nitxekanan bost eta zazpi urte bitartian sortutako trauma–*.

Independentziarako bigarren pausoa unibertitate garaian eman nuen. Alokairuko pisuan niretzako gela oso bat! Hura zen hura pagotxa, hura gozamen! Aldamenekoaren iratzargailuak ez ninduen alperrik esnatuko gehiago! Nahi nuen musika jarri, nahi nuen ordura arte oheko gozotasunean gustuko liburuari heldu, argia piztuta izateko batere

beldurrik gabe, etab.

Ikasketak bukatu eta zortez lantxo bat lortu nuen. Hortxe etorri zen hurrengo askatasun apurra. Inoiz gehiago etxean pagarik ez eskatzeko parada. Nire lehenengo soldatarekin mendiko botak erosi nituen. Bigarrenarekin oraindik egunerogunero karriatzen nauen *Bixipox* maitea, niretzat bakarrik izango zen lehenengo bizikleta!

Eta azkenik, nire etxetxoaren txanda. Beno, nirea oraingoz ehuneko 5a bakarrik da, sukaldeko

lau baldosa eta erdi eskas, beste guztia bankuarena baita. Baina, hileroko soldatatik puska handi bat kentzen badidate ere askatasuna eman egin dit. Inoiz nire etxe propioa, ni bakarrik biziko nintzen tokia amestu ez banuen ere, bi urte eta erdi hauetan adiskidetu naiz egoerarekin. Kostata bada ere.

Urriaren 20an, larunbatearekin eta goizeko 9ak jotzearekin telefono dei bat jaso nuen. Hemen, nire etxe honetan, nire oasi partikularrean. Gau luzea izan zen bezperakoa. Ez nuen ia begirik itxi. Ama zen, dena ondo atera omen zela esanez. Eskegi, alde batera eta bestera begiratu eta ezin pozez garrasika hasi. Independentzia alua!

Lekukoa pasatzeko garaia iritsi da. Ongi etorri independentziaren bidera, Maddi. Ni aldamenen izango duzun *bi-desorgina* naiz, zure izeba.

Post data: Marruka ez, baina larunbat hartan saltoka hasi nintzen, sabaia jotzeraino gainera.



Ikasketak bukatu eta zortez lantxo bat lortu nuen. Hortxe etorri zen hurrengo askatasun apurra. Inoiz gehiago etxean pagarik ez eskatzeko parada

edariategia
ANTILLA
jatebidea
Abeslari Kalea, 2 - Tel. 943 83 23 09

Kinokladenda - Ume arropa
argine.
www.lasonet.com/argine
Tel. 943 13 48 89
25eko DESKONTUA FAMILIA
UGARIEN TXARTELAREKIN

ARKAITZ
Taberna
Pinxoak,
plater konbinatuak
eta ogitarleko mundialak
ABESLARI KALEA, 4 TEL: 943 83 16 57

uranga
autozerbitzua

Aliprox
Eusko Gudar. Kalea 13-15
ORIO
943 83 38 75

ARISTERRAZU
jatebidea
Andatza auzoa AIA
Tel. 943 83 45 21

Automóviles ZARAUZ
CITROËN ZERBITZU OFIZIALA
Itzitalu bermak
eta ia bermak
sagui
ZARAUZ. Tel. 943 13 13 50

azkue
karrozeria
Ubegun industrialdea, 7 20809 Aia-Orio
Tf/fax: 943 83 51 86 Carroceriasazkue@hotmail.com

bodegas ERRASTI, S. L.

Eskualderako banatzailea
Zudugarai, Getariako txakolina
Ilagares, ardo gorri nafarra
Bodegas Gailur: Señorío de Laurgain
Gailur eta Ardandegi,
Arabar Errioxako ardoak
Eusko Gudar. 46 ORIO • 943 83 03 86 / 83 59 52 • E-posta: bodegaserrasti@euskalnet.net

Berrogei

Bagoeneko urte eta erdi igaro da *Moila bazterretik* idazteari utzi niola. Kaia izkinan bustitzeko arriskua izan ohi da eta pausoa atzera emanda, babesean, deskantsua hartzen da. Atsedena ere premia bilakatzen da daramagun bizitza geldiezin honetan. KARKARAKO beteranoak ere erretiratu dira. Hustuta, onena emanda eta nekatuta. Merezia dute lan onaren ondorengo erretireta. Indarrak berrituta itzuliko dira, denbora lekuko, beste neurri apalagoan KARKARARI laguntzera, baina eman dute erreleboa, eta osasuntsua da odol berriak jarraitzea proiektua. Animoak beharko dituzte eta laguntza. Baina era berean, prestatu beharko dira kimu berriak hemendik urte batzuetara aldizkariaren lema eramateko. Gaurtik pentsatu behar da biharko erreleboan eta idazteko aukerak eman gazteei, adin ezberdinetako gizakien proiektua izan dadin KARKARA.

Konturatuko zineten dagoeneko zahar itxura hartua dudala. Aholkuak ematen aitoen modura. Baina datorren urtean berrogei urte egitera noa eta nabari ditut aldaketak.

Pesimismoa nagusitzen denean, zoriontasuna ekintza txikietan gordetzen dela oroitarazten diot nire buruari. Gustura egiten ditugun gauza ñimiño horietan. Eta guztiok bezala nik ere baditut nireak. Zoriona, kalean euri zaparrada ari duen bitartean ohe barruan, maindireen azpian, goxo-goxo egotea da

Orioko kintarik onenekoa naiz, hurrengo urtean berrogei egitera doan edozeini galdetu, eta berehalaxe gazte izatetik heldu izatera pasako naizela sentitzen dut. Hilabete gutxi batzuen kontua. Egoera ez da samurra ispiluaren aurrean. *Flekilloa* eta buru gaineko *sarobe* elkartzeaz dira. Galtzak estutzean kolesterola gerrikoaren izkinetatik dariola. Eskuineko hanka errenka mugitzen dut eta lepoko minez osteopata –edo ostiapata– bisi-tatua dut luze ez dela.

Gainera egoera fisikoaren gainbehera gutxi balitz bezala, krisiaren latzak beldurra eta ezin negona sorrarazten dizkit. Bihar datorrena gaurkoa baino okerragoa izango denaren susmoa nagusitzen ari da eta *buru-kantsanzioek* nekatu egiten dute. Eguneroko martxaren eraginak pertsona higatzen du, suntsitu eta ahuldu.

Horrelakoetan, pesimismoa nagusitzen denean, zoriontasuna ekintza txikietan gordetzen dela oroitarazten diot nire buruari. Gustura egiten ditugun gauza ñimiño horietan. Eta guztiok bezala nik ere baditut nireak. Zoriona, kalean euri zaparrada ari duen bitartean ohe barruan, maindireen azpian, goxo-goxo egotea da. Kafe hutsa eskuez inguratu eta larunbateko *Berrian* Andoni Egañaren artikulua irakurtzea herriko edozein tabernatan. Semearekin, salabardoak hartu eta errio izkinan izkiretan aritzea. Hileko lehen larunbatean koadrilakoekin soziedadean elkartu eta afaltzea, barre eginaz eta elkarren berri izanaz. Eguzki epeletan hondartzan toalla zabaldu eta area zangoetan txirristatzen sentitzea, itsasoaren doinu leunen pean. Ostiral gauean mus txapelketa jokatzeko, bikotekidearekin, naiz eta norbera baino txarragoa izan. Senideak elkartu mahai baten jiran eta bazkari ederra eginez haurrak hazten ari direla ikustea. Goizeko seietan esnatu, eta otarra eta labana eskuan basora abiatzea perretxikoak biltzera. Emaztearekin, gau isilean, telebista ikustea sofán etzanda lasai-lasai.

Eta, zoriona, komunean eseri eta KARKARA irakurtzea da; bai lehen, orain eta gero.

Nire honetan
Idurre Lizarralde

Tok-tok, nor da?

Irratia piztu eta hara non nire arreta bereganatzen duen iragarki bat entzuten dudana. Iragarlea oso eza-guna da, bi pista emango dizkizuet; telefono konpainia bat da eta kolore laranja du protagonista. Badakizue nori buruz ari naizen, ezta?

Behin iragarlea ezagututa, iragarkiaren deskripzioa egingo dizuet: saltzaile bat da etxez etxe doana txartel laranja batekin. Bisita horietan hainbat jenderekin egiten du topo: zaunka gozoz ongi-etorria ematen dion zakur atsegin batekin; etxeko atea zabaldu eta korrika batean amari deitzen dion gaztetxo batekin; eta, azkenik, harrera beroa egiten dion adineko emakume batekin.

Iragarkia entzun ez duzenok, ideia bat hartu duzue, ezta? Zer pentsatua eman zidan, orain kontrakoa irudikatzen baitzait: zakurra zaunkaka eten gabe ezezagun bat etxe ondora hurbildu delako. Bestetik, gaztetxoa, nor den jakin gabe atea irekitzen. Eta, azkenik, gau eta egun etxea giltzarekin barrutik itxita edukitzen duten adinekoak.

Aitortu behar dut, nik oso gutxi irekitzen diedala atea: *Correoseko* eta KARKARAKO banatzaileei soilik. Saiakera ona izan da, baina txartel laranja-jadunari nire etxerako bisita bere bidaia orritik kentzeko eskatuko nioke.

Igo zaitez haize berrietara!

Galerna I

943890416-677149934
galerna1oriz@hotmail.com

BERME Aholkularitza S.L.
Zerga eta lege aholkularitza

- KONTRATUEN AHOULKARITZA
- AHOULKARITZA FISIKALA
- AHOULKARITZA JUDIZIALA
- KAP-MODURU AHOULKARITZA
- FISKAL AHOULKARITZA
- AHOULKARITZA ENERGIEN AHOULKARITZA

Julen Montolio Elomendi
m. 643 63 09 25

Biz. Bidea 10 bgo
28010 BELLER (Madrid)
t. 902 24 00 57
www.bermeaholkularitza.com

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAR

943 83 05 37 / 943 83 27 47

Katu Horia
ORIGINALIZAZIO KUTXAKO

ESTROPALARI, 10
20810 ORIO
tel. 943 11 66 99
LARRIOALDIA
608 67 64 85

tel/fax: 943 89 00 69
Bikain kalea, 4. 20.800 ZARAUTZ

URBIDE O.K.

ITURGINTZA, BEROGINTZA
GASA, BAINU ERAKUSKETA
Presupuesto, kargamaria, gasa

KOLON TXIKI
aturisegia
jateaketa

Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

943 572 870

KOASTA

Wifi zerbitzua
Kopak, gau giro aparta...

ITSASADARRA, S. L.
Jose Angel Iradi Udabe

aseguru artekaria
finka administrazioa
gestoria
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 89 40 29 Fax 943 83 54 98 itsasadarra@itsasadarra.com
Ibai Ondo 4, behe. 20810 Orio

Zaragueta
Herri Eskola *Orio*

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

Orioko
Herri
Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00

PIZZERIA

KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46

HIRUTASUN ESSENTZIAK®
BAT IZATEAREN METODOA®

"... terapien, nor zeren ikuslea galarazten dituzten oztopoen sortzea eta egonkortasuna lortzeko jarraitu beharreko bidea lantzen ditut maila guztietan!"

- Hirutasun Esentziak®
- Eskuen ezartzea
- Oreak energetikoa

Irkus Fernandez
PUNTUEZKO TERAPISTA
Tel: 655 726 291

TANATORIO ZARAUTZ
EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorak

Araba kalea, 35 Zarautz
Tel: 943 89 49 37 / Fax: 943 89 49 41
e-mail: harraspil@harraspil.net

ardoak, urdaikiak, gaztak, kontserbak, janari prestatuak

etxeraino eramaten ditugu

KVKV ARRI

943 83 09 84 aita lertxundi, 36 ORIO

LEIHOLAN

Aholkularitza tekniko eta erakusketak

Fabrika Agote Industrialdea Agote, 5. 20740 Zentxa

Erakusketak San Frantziska, 1. 20800 Zarautz Aita Lertxundi, 21. 20810 Orio Tel: 943 89 49 36

Karkara lagundu nahi dut: Karkara aldizkariaren laguntzaile izan nahi dut eta prest nago Karkarari urteko 35 euroko laguntza emateko.

Izen deiturak:

Helbidea:

Herria: Posta kodea: Tel:

Kontu korronteko zenbakia:

Gaia emanda Nola bizi duzu langabezia?

Gure herrietan ere gero eta jende gehiago ari da jasaten langabeziak sortzen duen sufrimendua. Hori dela eta, langabetu baten bizipenak jaso nahi izan ditugu hemen.

Egoeraren aurrean, ez egon geldirik

Maiatzetik nago langabezian. Aurretik, 8 urtez segidan lanean ibili naiz. Ondorioz, datoren urteko abuztua arte diru-laguntza dut. Eraikuntzan ibili nintzen lanean, eta sekulako beherakada eman zuenez, kalera joan nintzen, beste asko bezala.

Eraikuntzakoa bukatuta, biltegiko lanetan jardun nuen 4 hilabetez beste enpresa batean, eta, ordutik hona, langabezian nago. Lana bukatuta, lagun bat eta biok, Gipuzkoa guztia birritan pasatu genuen enpresaz enpresa. Curriculumak bota eta bota. Ez dugu ez deirik ez eta bestelako mezurik ere jaso. Lehenengoz itzuli guztia egin, eta, deitzen ez zigutela ikusita, ezin bada besoak gurutzatuta itxaron: bigarren go saiakera egin genuen. Baina, esan bezala, alferrikako lana izan zen guztia.

Urte erdia pasa da ordutik hona, eta ez da erraza egoera hau onartzea. Zorionez, langabezia saria kobratuz nago. Badut diru pixka bat eta ikasteko bidea hartu ahal izan dut.

Geldirik egotea baino hobea zela iruditu zitzaidan, eta nik gustukoa nuen horretan, argazkilaritzan, sakontzea erabaki nuen. Argazkilaritza profesionala ikasten ari naiz. Kostata hartu nuen erabakia. Banuen ikasten hastearen kezka, baita langabeziako laguntzak bukatu eta gero zer? galdera buruan bueltaka. Ez baita gauza bera 20 urterekin edo 30 urtetik gora dituzunean langabezian gertatzea.

Baina errealitatea bestelakoa da oro-

korrean. Ni oraindik gurasoen etxean bizi naiz, eta badut diru-iturria. Beste asko etxea ordaintzen ari dira, eta ez dute langabezian jasotzen den laguntzarik ere. Ikasi eta trebatu beharra daukagu, baina bakoitzak egoera desberdina du bere etxean. Zorionez, nik ikasteko aukera nuen eta, gaur, ziur nago hartu nuen erabakiarekin asmatu egin dudala.

Hasiera batean gu, eraikuntzan genbiltzanok, izan ginen kalera joaten lehenak. Baina, gero, bestelako asko etorri da atzetik. Lanean nenbilen enpresan 70 lagunetik 15 baino ez dira geratzen, ez baitago lanik. Beste enpresa askotan ere halatsu dabiltza: bizirauten.

Errealitate krudela bizitzen ari garen honetan, hala ere, gurean etorriko denaz, egoeraren larritasunaz, jabetzeko gaudela uste dut; Bai Orion eta baita Euskal Herrian ere. Telebistan ikusten ditugun egoera dramatiko horiek laster iritsiko zaizkigulakoan nago. Tamalgarrria da puntu horretaraino iristea, baina, agian, horrek irekiko dizkigu behingoz

Gogoratzen naiz, baita ere, enpresa batetik bestera ere mugitzen ginela. Toki batean lanean izan, beste batean lana eskatu, eta handik deika izaten genituen noiz joango ginen galdezka. Gaur ez da halakorik gertatzen

begiak. Jendeari langabeziako laguntza bukatzen ari zaio eta hipotekak ordaindu beharrean dago. Ikusten ez dugun arren, egoera larrian bizi den bat baino gehiago daukagu gure inguruan. Pixkanaka-pixkanaka bagoi hori ere betetzen doa, eta, zoritxarrez, inor gutxi jaisten da tren horretatik.

Lehen, gutxienez, lantxo txikiak egiteko aukera izaten genuen langabezian gerratutakoan. Ez ziren baldintza onak izaten, baina zerbait geneukan behintzat. Gogoratzen naiz, baita ere, enpresa batetik bestera ere mugitzen ginela. Toki batean lanean izan, beste batean lana eskatu, eta handik deika izaten genituen noiz joango ginen galdezka. Gaur ez da halakorik gertatzen.

Bitartean, ikasten jarraitzea da biderik onena. Aukera duenak behintzat egin dezala zerbait, ez dadila etxean gerratu. Egia da eskaintzen diren ikastaro gehienak oso esparru mugatuetara zuzentzen direla, baina bilatuz gero, aurkitzen dira gustukoak. Gainera, langabetuei laguntzak ematen dizkigute toki askotan.

Eta, hizkuntzaren bat menperatzen duenak, ez dezala izan beldurrik kanpora joateko. Ni ingelesa ikasten ari naiz. Ez kanpoan bizi nahi dudalako, ezta gutxiago ere. Baina beharrak agintzen duenean, edozein lan da ona.

Animo eta besarkada bat langabezian zaudeten guztioi. Eutsi goiari eta ez gelditu!

Iban Egiguren

Langabetua





Diskoaren aurkezpenean, ezkerretik hasita, Anjel Valdes -Elkar-, Asier Gozategi eta Iñigo Goikoetxea. KARKARA

Kalean dago jada Gozategiren azken diskoa

Kritika Gozategi

Musika. '1992-2012 All Stars' diskoa Donostiako Elkarren aurkeztu zuten azaroaren 8an.

Aste gutxi batzuk pasa dira Gozategiren *All Stars* diskoa kaleratu zenetik. Ahal bezain laster, diskoa erostera joan nintzen eta segituan jarri nintzen hura entzuten. Egia esan, pixka bat atsekabetu ninduen diskoak. Kanta berriak egongo zirela espero nuen eta, hara non, aurreko kanta batzuen bilduma bat zen!

Diskoaren azalean, 1992-2012 jartzen duenez, pentsa-

tzen dut, disko hau egitearen helburua hogeitaz horiek gogoraraztea izan dela. Esan beharra dago, ideia polita dela eta are gehiago bertan dauden kantak ikusita: nire ustez, jendeak gustukoen dituen abestiak baitira. Baina, hori ere ez zait asko gustatu. Horrenbeste urteren ostean, orain arteko disko bakoitze-ko kanta batzuen hautaketa egingo nukeen nik. Hau da, kanta zaharrenak ere jarriko nituzke. Badirudi, kanta modernoak bakarrik jarri behar direla diskoetan, eta hori ez da horrela. Iruditzen zait jendeak oso gustura hartzen dituela garai bateko piezak ere.

Bestalde, aipatzekoak dira,

kanta bakoitzari egindako alaketak: orokorrean gustatu zaizkit, oso ukitu freskoa ematen baitiete, niri behintzat, alaitasun handia helarazi didate.

Disko honetako kantak asko gustatzen zaizkidan arren, esan beharra dago, Gozategi bezalako talde baten- gandik gehiago espero nuela. Esandako hau guztia ez nuke nahi gaizki hartzerik, hausnarketa moduan hartu daitekeela iruditzen zait-eta.

Hala eta guztiz ere, poztan naiz egindako lan eta ahalegi- nagatik. Zorionak!

[ANDER BELDARRAIN]

Ikasleak idazle
Mireia Uranga

Saltoa batxilergora

DBHko azken urtea iritsi zaigu eta batxilergoan pentsatzen hasiak gaude. Horrek herria utzi eta beste toki batera joan beharko dugula esan nahi du. Esperientzia berri hori aberasgarria izango dela uste dut, jende berria ezagutuko dugu eta aurrerantzean edukiko ditugun bizipenak pres- tatzen hasiko gara.



Bestalde, eragoz- pen batzuk ere baditu kanpora irteteak, ga- rraioa hartu be- harko dugu eta honek kostu bat da- kar.

Baita ere, orain arte urte askoan elkarrekin egon ga- ren lagunak sakabanatzen hasiko gara eta horrek tristura sortzen digu.

Bukatzeko, esan beharra dago, aldaketek urduritasun puntu bat sortzen dutela, bai- na ziur nago aldaketa hauek guztiak ondo etorriko zaizki- gula gure ikasketen bidea ja- rraitzeko.

**Urte askoan
elkarrekin egon
garen lagunak
sakabanatzen
hasiko gara eta
horrek tristura
sortzen digu**



» INKESTA

Zenbat haur erregistratu ziren Orion joan den urtean?

Jaso ditugun erantzunetatik zuzena, **70** erregistratu direla da. Erantzun dutenetatik **%46k** asmatu du, bigarren aukera bozkatuena **75 baino gehiago** erregistratu direla izan da **%26arekin**.

» OSPA KIZUNA

**25 urte elkarrekin**

Mende laurdena pasa da Zaraguetako hainbat guraso elkartu eta bazkaria egiten hasi zirela. Ordutik hona urtero elkartu dira 10 bat lagun elkarren berri izan eta kontu zaharrak gogoratzeko. Aurtengoan, hortaz, urteurrena gogoan, egun berezia antolatu zuten: Leireko monastegia ezagutzera joan ziren egun pasa irailaren 29an. Hango ak miretsita, Irunberrira abiatu ziren tripa berdintzera.

**HURRENGO GALDERA****Zenbat bandera irabazi ditu bere historian Orio Arraunketa Elkarteak?**

Erantzun ezazu www.karkara.com webgunean eta emailtza 328. Karkaran argataratuko dugu.

» ZORITXARAKI!

Kanpandorreko arduradunari

Erloju publiko asko ez ditugu Orion, bi baino ez momentu honetan. Eusko Gudariko Kutzako erlojua kendu zutenetik, Arrantzale kaleko farmaziakoa eta elizako kanpandorrekoa baino ez dira geratzen herritarren bistarako.

Baina, zoritxarrez, kanpandorreko erlojuaren argia itzalita dago aspaldian, eta, ondorioz, iluntzen duenean ezin da inolaz ere zein ordu-tan bizi garen ikusi bertan.

Gauzak horrela, lerro hauen bitartez, eskertuko genioke erloju horren mantentzeaz arduratzen denari, mesedez, argia berriro ere piztutzeko. Eskumuturrean erlojua ibiltzeko ohiturarik ez duten herritarrek eskertuko dute-eta!



RAMIRO
argazkiak
www.fotoramiro.com
fotoramiro@fotoramiro.com
610 69 76 68
943 83 10 48

URANGA
burdindegia
Opari, menaje eta erremintak
fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

 **mauka**
PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK
TEL/F - 943. 572083
FAX - 943. 571190
lasenjo@hotmail.es
INES ASENJO
IBAI ONDÓ 13
20810 ORIO

 **Sagasti**
LEIHOAK
ROBERTO SAGASTI
Tf / fax: 943 13 00 77
sagastileihoak@telefonica.net
Arrantzale kalea, 65
20810 Orio (Gipuzkoa)

PERTSIANAK
AKO MAZ

Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...
Tel. 943 329 01 Muzikorra 600 70 52 27



Andoaingo bandako zuzendari Alberto Agirre oriotarra, erdialdean, bibote eta ile zuriaekin. ARTXIBOA

1948ko Santa Zezilia eguna

Oroimenaren kutxa

KARKARAK 2011n argitaratutako egutegian Orioko musika-bandaren argazki bat zegoen. 2012ko otsailean, Andoaingo Xabier Huitzik Oriora deitu zigan, argazki hartaz galdetuz. Fotoan, Orioko eta Andoaingo bandak ageri dira, Andoainen. Xabierren aitak hango bandan jotzen zuen eta gehiago jakin nahi zuen oriotarren bisitaz. Galdetzeaz gain, informazioa ere eman zigan: Argazkia 1948ko Santa Zezilia egunaren bezperakoa da, azaroak 21 (igandea). 1948ko abenduaren 19an hauxe erabaki zuen Andoain-

go Udalak: *Esquerranea tabernari ordaintzea 480 pta. Santa Zezilia eguneko musika banden kontzertuaren ondoko amaicotacoagatik.*

Horrekin batera, Huitzik azaldu zigan nor zen Andoaingo bandaren zuzendaria: Alberto Agirre Azurza oriotarra. Dirudienez, horregatik joan ziren oriotarrak Andoainera: bi banden artean omenaldi xume bat egitera gizon hari. Alberto Agirre 1913tik 1958ra izan zen bandako zuzendari. Albertoren amak, 1886an Errezilen jaioa bazen ere, Orion maistra postualortu eta bertan bizi izan zen 1901etik Andoainera joan arte. Gerra Orion igaro zuen, Andoaindik ihesi anaiengana etorrira. Andoainen musikari oriotar bezala zuten, musika

munduan Orion abiatu zelako. 1948an, bandako zuzendari 35 urte betetakoan, omendu zuten.

Donato Intxauspe Zarautzen bizi den oriotarra ondo gogoratzen da: *Galdagorriren kamioian joan ginen, arraunlariak bezala: jarritako bankuetan eserita. Kontzertua emanda, bazkaria egin genuen taberna batean. Garai hartan, handiro ospatzen genuen Santa Zezilia eguna, urte batzuetan angulak eta langosta eta guzti. Horretarako, urtean zehar diru pixka bat gordetzen zen, Udalak-eta emandakotik. Gero, Andoainoak ere etorri ziren Oriora.*

[IÑAKI ITURAIN]

» JAIOTAKOAK

- Peru Goikoetxea Etxeberria, Orion, azaroaren 18an.
- Peru Alguacil Larrañaga, Orion, azaroaren 7an.
- Aimar Lertxundi Artola, Orion, azaroaren 4an.


» EZKONDUTAKOAK

- Naroa Etxeberria Gabilondo eta Asier Solaberrieta Agirre, Aian, azaroaren 24an.

» HILDAKOAK

- Ez da hildakorik izan

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora: **943 83 15 27**



Sukalde eta bainuen erreformak

XANTI MUJIKA

Igeltseritza

699 46 76 21
943 13 10 37

TAILER MEKANIKOA

MANTEROLA S/L

TXORROKAK - BALBULAK

Santiago-aurzoa - 18 postakutxia
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA

TMM

AENOR
R
ISO 9002

Eserako balbula
AENOR kalitate ziurtagiriduna

“Izaerak patua mugatzen duela ez du astrologiak esaten, genetikak baizik”

Gregorio Lozano

Astrologoa

Unibertsitatean liburu bat irakurri eta jakin-mina piztuta sartu zen astrologian Gregorio Lozano. Pertsonen izaera eta patua lotzen ditu karta astralen bidez, eta besteak beste, astrologiaren eta osasunaren arteko lotura aztertzen ari da diagnosiak errazteko.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Psikologian diplomatua da Gregorio Lozano madrildarra. Orain dela 25 urte klimak gure artera erakarri zuen, besteak beste. Donostian eta Getarian bizi ondoren Oriora etorri da. Argazkilaritzan eta igeltsero ibili eta gero, 1979an astrologiarekin kateatu eta horretan ari da.

Nolatan hasi zinen astrologian?

Astrologiari buruzko liburu bat utzi zidaten; jakin-mina piztu zidan eta horren inguruko informazio bila hasi nintzen. Astrologo bat ezagutu nuen eta anaiari eta bioi iragarpena egin zigun. Denbora aurrera joan ahala iragarritakoa betetzen joan zen. Nire iragarpenak errealtateratara pixka bat hurbiltzen ziren, baina hark egindakoak guztiz. Beraz ikasten hasi eta gaiak harrapatu egin ninduen.

Zer da astrologia?

Ilargiak mareetan eragina duen bezala astroek gudan dute indarra, nola zehazki ez dakigun arren. Denok dakigu grabitateaz gain beste indar asko ere badaudela. Zientzia-ikerketa asko ari dira egiten eta indar horietako batek gudan eragiten duela uste dugu guk.

Alde pragmatikoari egiten diogu kasu; ez dugu indarra aztertzen. Jendeari erreparatzen diot eta bere jaiotza unean eta kontsulta egitera datorrenean planetak non dituen ikusita, bere karta astrala egiten dut haien izaera eta patua lotzeko. Izan ere, pertsona baten izaerak mugatzen du bere patua; baina hori ez du astrologiak esaten, genetikak baizik. Pertsonaren izaera, dirua, bizitza bera, zein etorkizuna ikertzen ditut. Jaioteguna eta ordua esanez gero, lehen begira-

tuan esan ditzaket hainbat batzuk, baina beti ere zalantza txiki batekin. Ordu batzuetan sakonduz gero, informazio gehiago emango nuke.

Askorentzat asmakeria edo iruzurra dira karta astrala, tarota, igarleak...

Telebistan agertzen dira batzuk astrologo direla esanez maskor handiekin, tarot kartekin, irisa begiratuz... Hori ez da astrologia; hori gauza asko nahastea da. Pertsona batek astrologia ezagutzeko eta funtzionatzen ote duen jakiteko astrologo profesional batengana jo behar du; eta harkitsu-itsuan azterketa bat egingo dio, nor den jakin gabe. Astrologo profesional bat baino gehiago bisitatuz gero, gauza bertsuak esango dizkiote, eta horrela jakin daiteke benetan ari direla. Telebistakoek zeharkako galderak egingo dizkiote kontsulta egin duenari buruz eta igarle bakoitzak gauza ezberdinak esan ditzake, baina guztiak ez dira egia.

“Telebistako igarle bakoitzak gauza ezberdinak esan ditzake pertsona berari buruz eta esandako guztiak ezin dira egia”

“Astrologia bidezko programa bat eratzeko aukera emango balidate proba asko aurreztu eta zuzenago joango ginatke gaitz baten diagnosira”

Astrologiak eta osasunak duten harremana ere ikertu duzu, ezta?

Bai, osasunaren arlo fisikoa zein psikologikoa ikertzen ditut. Pertsona batek gaitz arraroren bat izanez gero –gehiena genetikoa bada ere–, sendabiderik ezean, denbora asko pasa daiteke zehazki zer duen jakin arte. Astrologiak gaixotasun arraro denak sailkatuta eduki ez arren, nik esan dezaket zein atal ez dagoen ondo, neuronek huts egiten duten, zirkulazio arazoren bat ote dagoen... eta zer zaindu behar luketeen aholkatzen diet. Pertsona baten gaixotasuna aurkitzeak milaka euroko kostua izan dezake: analisiak, eskanerrak, bestelako probak, etabar, baina astrologia bidezko programa bat eratzeko aukera emango balidate proba asko aurreztu eta zuzenago joango ginatke gaitz horren muinera. Egun karta astralak egiten segitzen dut, baina esku artean osasun kontuak ditut. Diagnosiak egiteko azterketak egiten nabil.



KARKARA

» AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Alokatzeko

■ Etxebizitza hartuko nuke alokairuan. Pertsona batentzako. Merkea. 677162846 (Mario)
 ■ Eraberitutako hiru logelako etxebizitza alokagai Eusko Gudari kalean. Tf.: 636386663 edo 607580841.
 ■ Etxebizitza alokatzeko Aian, Andatzen. Garajea eta igogailua ditu. Merke. Tf.: 660893220 (Manolo).
 ■ Neska batek logela alokatuko luke Orion. Tf.: 627164750.

Galdutakoak

■ Urrezko belarritakoa galdu dut Arrantzale kaltetik Ibai Ondora bitartean. Aurkitu duenak deitu. Tf.: 619199118 (Silvia).

Lan eskaera

■ Emakume arduratsua, erreferentziekin orduka, etxean bizitzen zein kanpoan lan egiteko prest. Zaintzan edo garbiketan. Tf.: 646263682.
 ■ Emakumea adinduak zaintzen edo etxeak garbitzen lan egiteko prest. Tf.: 671351310 (Veronica).
 ■ 20 urteko neska zaraustarra, arduratsua, eta arkitektura ikaslea, asteburuetan, Orion eta Zarautzen eskola partikularrak eman eta umeak zaintzeko prest. Etxetara joan naiteke. Tf.: 686019949 (Maria).
 ■ Emakumea asteburuetan lanerako prest. Garbiketan eta zaintzan. Tf.: 638602555.

Erosteke

■ Macintosh ordenagailua erosiko nuke. Mahai gainekoa. Tf.: 637836663 (Saioa).

Saltzeko

■ Etxebizitza salgai Usurbilen. 3 gela, egongela handia, sukaldea, 2 komun, 3 balkoi -bat itxia-. Igogailu eta ganbararekin. Bizitzen jartzeko moduan, altzariekin eta eguzkitsua. Distribuzio oso ona. Lehen: 240.000 euro. Orain: 216.000 euro. Tf.: 662056899.
 ■ Tamaina oneko Aiako intxaurrak salgai. 5 kilo 20 eurotan. Tf.: 943132131 edo 634424887.

» ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
30	05:07 eta 17:26	11:15 eta 23:24	
01	05:40 eta 17:59	11:50 eta 23:59	
02	06:13 eta 18:34	13:26 eta ____	
03	06:49 eta 19:12	00:35 eta 13:05	
04	07:28 eta 19:55	01:15 eta 13:48	
05	08:14 eta 20:47	02:00 eta 14:37	
06	09:09 eta 21:49	02:53 eta 15:35	
07	10:16 eta 23:00	03:56 eta 16:40	
08	11:28 eta ____	05:06 eta 17:47	
09	00:09 eta 12:37	06:15 eta 18:50	
10	01:12 eta 13:39	07:18 eta 19:47	
11	02:08 eta 14:35	08:15 eta 20:39	
12	03:00 eta 15:26	09:08 eta 21:29	
13	03:49 eta 16:16	09:58 eta 22:17	
14	04:37 eta 17:04	10:47 eta 23:05	

» ZAINTZAKO BOTIKAK

ABENDUA

■ 1ean eta 2an, Gallo.
 ■ 3an, Larrañaga.
 ■ 4an, Mutiozabal.
 ■ 5ean, Etxeberria.
 ■ 6an, Azaldegi.
 ■ 7an, Gallo.
 ■ 8 eta 9an, Larrañaga.
 ■ 10ean, Mutiozabal.
 ■ 11n, Etxeberria.
 ■ 12an, Gallo.
 ■ 11n, Etxeberria.
 ■ 13an, Azaldegi.
 ■ 14an, Zulaika.
 ■ 15etik 21era, Lasa.
 Gaueko zaintza: Zulaika

Azaldegi: Urdaneta kalea, 8.
 943133183 Zarautz
Etxeberria: Gipuzkoa kalea, 17.
 943832398 Zarautz
Mutiozabal: Kale Nagusia, 12.
 943832970 Zarautz
Larrañaga: S. Frantzisko, 16.
 943133814 Zarautz
Lasa: Herriko plaza.
 943830936 Orio
G. Artífano: Zigordia kalea, 17.
 943134019 Zarautz
Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo
 Enea. 943132983 Zarautz
Zulaika: Bizkaia kalea, 41
 943133994 Zarautz

» TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	5:47	6:17	6:47	7:17	7:47	8:17	8:47	9:47	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
Aia-Orio	6:14	6:44	7:14	7:44	8:14	8:44	9:14	10:14	11:14	12:14	12:44	13:14	13:44	14:14	14:44	15:14	15:44	16:14	16:44	17:14	17:44	18:14	18:44	19:14	19:44	20:14	21:14	22:14
Zarautz	6:20	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:08	6:38	7:08	7:20	7:38	8:08	8:20	8:38	9:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:08	19:38	20:08	21:08	22:08	22:40
Aia-Orio	6:15	6:45	7:15	7:25	7:45	8:15	8:25	8:45	9:15	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15	14:45	15:15	15:45	16:15	16:45	17:15	17:45	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	21:15	22:15	22:47
Donostia	6:39	7:09	7:39	7:48	8:08	8:39	8:48	9:09	9:39	10:39	11:39	12:39	13:09	13:39	14:09	14:39	15:09	15:39	16:09	16:39	17:09	17:39	18:09	18:39	19:09	19:39	20:09	20:39	21:39	22:39	23:11

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugipuzkoa.com. Grisez dauden orduetan trenak daude lanegunetan.

4. orrialdetik dator

Euskara elkarteak: komunitatearen nahiak sortu zituen, euskaraz bizitzeko esparruak behar zirelako. *Arrasate Euskaldun Dezaqun* jarri zion bere buruari izena sortu zen lehenak. Ezin argiagu. Euskaraz bizitzeko, herria euskaldundu. Arrakasta izan zuen asmakizunak, eta zientia bat elkarte sortu da harrezkeror, beste horrenbeste herritan.

Toki hedabideak: denek ez zuten McLuhan ezagutuko, baina euskara elkarteek argi ikusi zuten amaraunaren premia. Gutaz eta hurbilekoaz jarduteko hedabideak, gure hizkuntzan. Informazio uholdearen baitan komunitate irauteko, euskaratik. Berririo arrakasta, eta dozenaka toki hedabide sortu ziren 90eko hamarkadan, erdaretan zeudenei

nagusituz. Lehia irekian urrezko domina irabazi zuen hor euskarak. Ez ditu asko bitrinan.

Batera: herriz herriko elkarteak indartzeko sortu zen Topagunea duela 15 urte, eta toki komunikabideak bateratzeko eratu da Tokikom aurtan. Batera hobeto eragiteko. Eta Kontseiluan ere helburu berarekin ari gara. Euskara herrian gero eta indartsuagoa izan dadin euskararen nahia, euskaraz bizi nahia.

Hain zuzen horregatik deitzen dizugu abenduaren leian Donostiara joan gaituzen: aukera berdintasuna, baldintza egokiak eta nahikotasuna lortzeko, bagarela eta izaten jarraitu nahi dugula indarrez adierazteko. Herrixka globalean euskaraz bizi nahi dugulako.

■ **Mikel Irizar eta Jasone Mendizabal.** Topaguneko presidentea eta zuzendaria

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidal daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (kultur etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio. KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.



Erabilitako jostailuen bilketa

Abenduaren 15ean Herrio Natur Taldeak antolatuta, Jostailu Erabilien Azoka izango da egun osoan Herriko Plazan. Jendeak erabili ez edo behar ez dituen jostailuak jasoko dituzte, elkartrukea eta berrerabiltzea sustatu, eta Gabonetako gehiegizko kontsumoa saihesteko. Azaroaren 30ean jostailuak eraman ez zituztenek abenduaren 14an eraman ditzakete Kosta Tailerrera, 18:00etatik 20:00etara bitartean egingo da bilketa.

Kontzertua

■ Abenduaren 22an. Bertsio gaua. 22:00etan, Etxeluze gaztetxean.

Aia

Orio

Informatika

■ Abenduan KZguneko begiralea astelehenetan egongo da goizez 09:00etatik 13:00etara Kultur Etxeko gelan. KZgunea irekita egunero: 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Bingo

■ Abenduan ez da Zaharren Babeslekuak antolatutako bingo saiorik izango. Hurrengo 2013ko urtarrilaren 9an 16:30etik 18:30era, Kultur Etxean.

Bilerak

■ Abenduaren 1ean. 2013ko aurrekontu proposamena lantzeko bilera herritar eta eragileentzat, Bilduk antolatuta. 10:00etan, Kultur Etxean.

Ikastaroa

■ Abenduaren 1ean eta 2an CHIKUNG CFQ lehenengo mailako ikastaroa. Larunbatean 09:00etan eta igandean 14:30ean, Mandalara taldearen lokalean. Informazio gehiago: 648 487 489 edo mandalarataldea@gmail.com.

Traste zaharrak

■ Abenduaren 12an eta 27an. Traste zaharren bilketa ohiko zabor ontzien ondoan. Trasteak atera aurretik udaletxera deitu behar da zer aterako duzuen jakinaraziz. Tf.: 943 83 0346.

Hitzaldia

■ Abenduaren 14an. *Kontzientzia berriaren esnatzea*, hitzaldia. Hizlaria: Rocio Fatima Duarte, medium bideratzaileria. Mezu pertsonalizatuak. Doan. 20:00etan, Mandalara

taldeko lokalean -Antxiola, 15 Behea-. Toki mugatuak. Aurrez lekua gordetzeko: 648 487 489 edo

mandalarataldea@gmail.com

■ Abenduaren 15ean. *Aingeruekin sendatzea*, tailerra. Hizlaria: Rocio Fatima Duarte, medium bideratzaileria. Energia trukea 65 euro. 10:00etatik 15:00etara, Mandalara taldearen lokalean. Informazio gehiago: 648 487 489 edo mandalarataldea@gmail.com

Ipuin Kontalaria

■ Abenduaren 18an. Pello Añorga ipuin kontalariaren saioa umeentzako. 18:00etan, Udal liburutegian.

Odol-emaileak

■ Abenduaren 20an, odol-ateratzea. 18:30etik 20:30era, anbulatorioan.

Podologo

■ Abenduaren 22an, podologoaren kontsulta sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko deitu zenbaki honetara: 943 13 1144.

Silo-Bolak

■ Abenduaren 11n, silo-bolen bilketa. Informazioa: Urkome (943 81 65 00) edo Igor (660 04 97 51).

Erromeriak

■ Abenduaren 2an, Arkaitz Allur eta Idurre Arriola erromeria. Abenduaren 9an, Asiazaran anaiak eta Leire trikitilariekin. 18:30etik 21:30era, Andatza auzoko Aristerrazu plazan.

Lehiaketa

■ Abenduaren 13an. Argazki lehiaketako sari banaketa. arratsaldean, Kultur Etxean.

HAURREN KIROL LESIOAK

ERREKUPERATZE AZKARRA!

FISIOTERAPIA TRATAMENDU
ANITZAK

ESKUZO TERAPIA

TRATAMENDU
POSTURALAK

LUZAKETAK

KINESIOTAPING

TECAR TERAPIA

OSTEOPATIA

BIZKAR
HEZURREKO
MANIPULAZIOAK

EKOGRAFIA BIDEZ
EGINDAKO
MEDIKU
DIAGNOSTIKOAK

ZAINTIRATUAK

BIHURDURAK

ZUNTZ-ETENDURAK

KONTRAKTURAK

EBAKUNTZA
ONDORENGO
ERREHABILITAZIOAK

GAINKARGAK
TENDINITISAK

GIHAR DISTENTSIOAK
LOTAILU HAUSTURAK

investigación
fisioterapia
sinergia

Ibai Ondo 1, Orio 20810.
943 13 05 77 - 685 71 85 95
www.sinergia-web.com